



Arrantzan ere bada alternatiba



Pierre Hazan

bake prozesuetan
bideratzaile

«Dagoeneko ez
gaude konfrontazio
armatuan,
konfrontazio
memorial eta
ideologikoan baizik»

Net Hurbil

Deshazkundera
praktikara
eramateko
manifestua

Itxaro Borda

azken nobelaz

«Beti esaten dugu
'gora gu eta
gutarrak!'
eta besteak zer?»

Frackinga Araban

Ingurumen
txostenik gabe
gasa ustiatzen
hasiko diren
beldur

Larrun

Frantziako aro
politiko berria



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com



Ataka esturako, ilusioa eta informazioa



porretarako sasoia datorkigu irakurle eta, urtero moduan, abuztuan ez da izango ARGIA aldizkaririk. Neurri batean behintzat ganbara arindu beharrean gaude gu ere eta asmo horrekin helduko diogu abuztuari. Hemen izango gaituzu berriz irailaren hasieran, datorkigun urte bukaera beroari heldu eta zeuretzat galbahe lana egiteko prest.

Garai latzak bizi ditugu eta aurrera begirakoak ere estuak dira. Gu ere ikuspegi ekonomikotik oso estu ari gara; ez da berria gurean, baina egia da urte oparagoetan gu ere goxoago ibili garela. Gerrikoa estutu beharrak, esate batera, 2012ko soldatetan %14ko beherakada egitera behartu gaitu. Gure lehen helburua lanpostuei eustea da, eta gure produktuei eta beren kalitateari ere bai. Hala, eta 2010etik igotzerarik egin ez dugula kontuan hartuta, irailetik aurrera aldizkariaren salneurria %5 igoko dugu, 0,15 euro aleko.

Krisia sortu duten bankuak aurrera ateratzeko herritarren dirua erabiltzen dela jakiteak, trumoiak sortzen ditu gure barnean. Bai, guk ere sumindura saldoka dugu, baina lanerako eta salaketarako gogoia ere bai. Eta zer demontre, baita ilusioa ere, ARGIAN behintzat gaur gaurkoz dosi handitan gainera.

Badakigu une giltzarria dela egungoa eta halakoetan ezin dela lo geratu. Gurean udazkena ere beroa izango da, zorionez arrazoi positiboengatik: bai aldizkarian bai Interneten aldaketak egingo ditugu. Aldizkarian, adibidez, iritzi saila goitik behera berrituko dugu eta kultura sailean ere izango da berririk. Interneten izango dira aldaketarik handienak eta gure ataria goitik behera berrituko da udazkenean.

Krisiak krisi, gu gora goaz irakurle kopurutan. CIESeK aurtengo lehen sei hilekoan emandako datuen arabera, ARGIAk 57.000 irakurle ditu Hego Euskal Herrian, iaz baino %7,1 gehiago. Interneteko datuekin ere pozik gaude: 5.000 lagunek irakurtzen dute egunero argia.com (CIES). Baina Interneteko kasuan irakurri bakarrik ez, gero eta jende gehiagok ikus-entzun ere egiten gaitu, bai geuk ekoiztutako bideoetan, dokumentaletan edo bai gero eta arrakasta handiagoa duen gure Beranduegi web telebistan: oraindik ikusi ez baduzu, horretara animatzen zaitut irakurle, gure produktu izarretakoa da eta zorionez beste batzuek ere hala iritzi diote (aurten Rikardo Arregi Kazetaritza Saria jaso du).

Indarrez eta ilusioz gabiltza etxe barruan eta baita kanpoan ere. Besteak beste, Herri Ekimeneko Euskal Hedabideek udazken hasieran sortuko duten elkarte berria gogo handiz ari gara bultzatzen. Elkartearen ardatza garbia da, bakarka baino elkarrekin hobeto egingo diogu aurre bizi dugun sasoi gogorari. Asko gara euskarazko komunikabideak, izaera anitzekoak eta hainbat aburukoak, bidea ez da erraza izango, baina elkarlanaren koskari ere heldu beharrean gaude.

Lau astez, beraz, ez gaituzu paperean ikusiko, plazerik baduzu Interneten bai. Zeuri ere, hala badagokizu, oporraldi ona opa dizugu, hartu atsedean eta itzuli indartsu, datozkigun garaia gogorak bezain ilusionagarriak izan daitezke eta. Hori bai, argi izan, errealtatea ondo ulertzea eta informazioa izatea inoiz baino giltzarriago da sasoi gaitz hauetan; ataka estuan, herritar informatuak beti izango ditu baliabide gehiago aurrera egiteko. Informazioak jantzi egiten du pertsona, eta askeago. Geure independentziatik, horretan saiatzen gara.



Gurean udazkena ere beroa izango da, zorionez arrazoi positiboengatik: bai aldizkarian bai Interneten aldaketak egingo ditugu. Aldizkarian, adibidez, iritzi saila goitik behera berrituko dugu eta kultura sailean ere izango da berririk. Interneten izango dira aldaketarik handienak eta gure ataria goitik behera berrituko da udazkenean.





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko uztailaren 29a, 2.333. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Arantxa Urretabizkaia:** «Urte hauetan sei bozka desberdin eman ditut». SUSTRAI COLINA / 5

Asteko gaia

- **Arrantza.** Jasangarria izango da, edo ez da izango. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 6

Pertsonaia

- **Pierre Hazan:** «Ez dut inposatutako bakean sinesten». SUSTRAI COLINA / 11

Iritziak

- **Zirtak** Ni ez naiz idazlea. ANGEL ERRO / 16
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- Eskola umeen euskarazko adierazkortasuna! PAKO SUDUPE / 17
- **Txandan** Dabilen harria. IGOR ESTANKONA / 18
- Udako ekaitz baten faseak edo. ENEKO OLASAGASTI / 19
- **Bertso berriak** Murrizketekin jarriak. XABI PAYA / 20

Erdiko kaiera

- **Liburuak.** Uda betean gozatzekoak. ERREDAKZIOA / 21
- **Itxaro Borda:** «Dragana mitifikatzea gure jarduera nagusietarik bat da». IRATXE ESNAOLA / 28
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 31
- **Ihesi** Danubio, hamaika nortasuneko ibaia. LARRAITZ ARANDO / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Osasuna** JUAN LARRAZ / 37
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 38
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 39

Termometroa

- **Frackinga.** AEBetako enpresen nahietara egokitutako plana. UNAI BREA / 40
- **Sare sozialak.** Twitter euskaraz, hurrengo zer? ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Zor eztanda gaititu deshazkunde selektiboarekin. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Panfleto banatzailea. GARBINE UBEDA GOIKETXEA / 50

OHARRA

Datozen asteetan ez da ARGIA kaleratuko, udako oporraldia dela eta. Irailaren 2an itzuliko gara.



“Urte hauetan sei bozka desberdin eman ditut”

Arantxa Urretabizkaia

65 urte eta erretiratzeko asmorik ez.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hemen orori buruzko orotariko iritzi-emaile bat.

Nire iritzi guztiak behin-behinekoak dira. Bertsolariak bezala, gaia jarri eta bota. Ia guztiari buruz botako nuke bertso bat, baina ez naiz ia ezeri buruz bi folio idazteko gai.

Horregatik berotzen dizkizute belarriak?

Lerroatuta dagoenari asko kostatzen zaio lerroatuta ez dagoenarekin eztabaidatzea, eta nik urte hauetan sei bozka desberdin eman ditut. Horri, herri honetan %1eko desadostasuna duena beste espaloian salduta dagoela kontsideratzen dela gehituz gero...

Literaturaz hitz egin eta bakea!

Literatura? Oso jende gutxiri asko interesatzen zaio, baina gehiengoari ez zaio piperrik ardura!

Euskadi Sarien inguruko eztabaidak ez al ziren mundu gerren parekoak?

Hain pastel txikiarentzat hainbeste indar xahutzea erridikulua iruditzen zait. Eskerrak Sarrionandiak eskemak puskatu dituen, ze Euskadi Sariako finalista izateari uko egin zion bat Espainiako Sari Nazionalen parte hartzen ikusi nuela esango banizu...

Kazetaritzaren etikaren izenean, trapu zaharrak astintzeari utzi eta zure azken nobelaren gai nagusia den zahartzaroaz hitz egiteko aginduko nizuke!

Gizarteak, beldurra baino gehiago, gorrotoa

dio zahartzeari. Ezin da zaharra izan, inork ez du zaharra izan nahi, eta patetikoa da adin batetik gora itxura gaztetzeko egiten duguna. Zahartzaroari buruzko ideologia falta zaigu.

“Zahartu gara zahartu, ta ez gaude konforme...”, bertsio berria dago modan?

Egizu proba: itxurak itxura, parekoari gazteagoa dirudiela esan eta %100ek sinistu eta eskertu egingo dizu. Noiztik dauka “zahar” hitzak konnotazio negatiboa? Lehen ez al zeuden adin batetik gorakoak gizartearen gailurrean?

Eta zu 65 urte betetzear eta oraindik lan finko-rik gabe!

Baina, gaur egun, nork dauka lan finko eta segurua? Goizetik gauera *mileurista* bihurtu nintzelako bukatu nuen *3 Mariak*. Badakit horixe dela askatasunaren prezioa. Badakit estutasun horiek dauzkala aske bizitzeko hau-tuak.

Nik uste nuen idazle batentzat askatasuna liburua aurkeztean inork ulertzen ez dituen teo-riak agertzea zela.

Idazle batek ez daki zer egin duen, zer egin nahi izan duen baizik. Horregatik, hainbeste-ko sermoiak bota beharrean, utzi ditzagun gure lanak jendearen eskuetan, eta irakurleek esan dezatela egin dugunak merezi duen ala ez! ■



Arrantza

Jasangarria izango da, edo ez da izango

Gauza jakina da: itsasoa agortzen ari gara, arrainak ugaltu daitezkeen baino azkarrago ustiatzen, eta espezie ugari desagertzea aurreikusten dute azterketek. Saihesteko, arrantza jasangarriaren aldeko aldarria ahobatezkoa da, baina praktikan ez du hori bultzatzen Europar Batasunean prestatzen ari diren Arrantza Legeak. Hala ere, arrantza jasangarria alternatiba bideragarria dela erakutsi dute Ziburu-Donibaneko arrantzaleek.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Dani Blanco

DONIBANE LOHIZUNEN PORTUAN aurkitu dugu Imanol Ugartemendia, *Sans Peine* barkuan. “Izen frantsesa du barkuak, hala zuen erosi genuenean, eta ezin aldatu, zorte txarra ematen omen du-eta, superstizio kontuak”. Ugartemendiak 30 urte ditu eta 12 urte dara-

matza arrantzan. Hiru lagun aritzen dira barku berean, neguan bi baino ez, eta urtean hiru bat astez eskolatik datorren gazte bat izaten dute ikasten. Astean behin gasolioa bota, goizero 7etan abiatu eta 30 bat kilometro itsasoratzen dira; tretza jaurti, krakada egin, eta

Imanol Ugartemendia bere barkuan, Donibane Lohizunen.



arratsaldean portura berriz, 5ak edo 6ak alde-
ra. Arrantzaten dutenaren %70-80 legatza
da, gainerakoa batez ere itsas aingira, hegala-
zea eta abadira, baita lotxa pixka bat ere.

Bi urtez pelagikoetan aritu zen Ugarte-
mendia, arraste teknika suntsitzaileak erabil-
tzen dituzten barku handietan alegia: “Bal-
dintzak askoz okerragoak ziren. Hilabete
osoa joaten ginen kanpora eta ez nuen batere
maite. Arrain asko hartzen zen, eta diru gutxi
irabazten. Arrain guztia lehertzen duzu, asko
uretara botatzen duzulako buel-
tan, hila, txikiak direnak-eta,
beraz ez da ona”. Barku txiki
bat erosi eta bestelako arrantz-
aren aldeko apustua egin zuen.
Ziburu-Donibane Lohizunen,
arrantzaleek, arrain-saltzaileek
eta apezak elkarte bana dute eta
barkua erosi nahi duenari
laguntzen diote. Barkuaren
balioaren %10 uzten dio elkarte
bakoitzak –guztira %30 ingu-
ru, beharraren arabera-. Ordainetan, elkarte
bakoitzari asteko salmentaren %5 itzuli behar
dio arrantzaleak. Sektorean lan egin nahi
duten belaunaldi gazteak laguntzeko sortu
zen ekimena. “150 bat arrantzale izango gara
hemen, eta lauzpabost barku handi baino ez
dira geratuko, gainerakoek 12 metro baino
gutxiago dute. Guretzat artisau-arrantza da
12 metro baino gutxiagoko barkutan egiten
dena, eta amua erabiltzen dugu; ingurukoek
bolintxa ere erabiltzen dute, antxoak edo sar-
dinak harrapatzeko, eta baten batzuek sare
tzipiak ere bai. Hegoaldean, Hondarribian,
Getarian... barku handiak nagusitu dira,
horretarako subentzioak ukan dituztelako,
baina gaur egun ez dago subentziorik gehia-
go eta behar dituzte pagatu
mantenua-eta, nola egin orain,
dirurik ez dagoenean? Ezin da
gehiago halako barkurik erosi,
eta gainera, ze arrain harrapa-
tzeko? Barku tzipiekin arrain
gutxi hartzen duzu, gastua ere
txikiagoa da eta bururako arazo
gutxiago, dudarik gabe. Nire-
tzat irtenbide ona da. Ez naiz
aberastuko, baina oso ongi bizi
naiz, eta nirekin arrantzaten
duten biek familia dute, seme-alabak, eta
ederki bizi dira. Eta ez dut ezer suntsitzen”.

Pelagikoetako sarraskiak zuzenean ikusi
ostean, argi du Urruñako arrantzaleak, arti-
sau-arrantzak izan behar du etorkizuna. Itsa-
soan jasotakoa Ziburu portuan lurtean jar-
tzen dute, arrain-saltzaileak etorri eta
enkantean diru gehien eskaintzen duenak
eramaten du pieza. Sare txikiarekin denetik

**“Ezin gara ibili jangelan umeei
Vietnamdik ekarritako panga
ematen, hemen arrantzatutakoa
portuan saldu gabe geratzen den
bitartean. Denok sentsibilizatzea
beharrezkoa da”**

LEO BELAUSTEGI, ONDARROA 12 MILIA

**“Agintariei ahoa betetzen zaie
hitzekin, artisau-arrantza,
kostakoa... baina gero baxurakooi
kuota oso txikiak uzten dizkigute,
ez gaituzte benetan baloratzen”**

**EUGENIO ELDUAIEN, GIPUZKOAKO
KOFRADIEN FEDERAZIOKO PRESIDENTEA**

pixka bat harrapatzen dutenentzat, salmenta
zuzenerako benta bana dute Ziburun eta
Donibanen. Horrez gain, arrantzale koopera-
tibak saskiak egiten ditu arrainarekin, 20
eurotan adibidez, banatzeko, eta barnealdean
promozioa egiten dute jendeak eskaria egin
dezan. Kooperatibekin funtzionatzen dute
Ziburu-Donibanen, nahiz eta gaur egun
indarra eta eragina galdu duten. Azkainen
Itsas-ama ekimena abiatu du gazte batek,
Ugartemendia eta gainerakoei arraina erosi
eta saskiak egiten ditu banatze-
ko. Eta Etxalde mugimendua-
rekin biltzen ari dira, nekaza-
rien gisan ideiak hartzeko,
bitartekariak saihestuz arraina
ahalik eta modu egokienean
nola banatu. “Arrainari irteera
ematea da helburua, prezio dui-
netan, eta ongi bizitzea”.

Kontrako norabidean

Deskribatutako irudia ez da ohi-
koena, ordea. Teknika suntsitzaileekin gaina-
rrantzaten duen eredu industrial nagusitu da
Europar. Bidean aurkitzen duten guztia harra-
patzen duten sare pelagikoak dira teknika era-
sokorrenetakoa. “Bolanta famosoak izan geni-
tuen urte askoan, gero desagertu egin ziren eta
azken urteetan Euskal Herrian min izugarria
egiten digu arraste pelagikoak, hondoko arras-
teak dena xehe-xehe egiten du”, dio Eugenio
Elduaien Gipuzkoako Kofradien Federazioko
presidenteak. Imanol Ugartemendiak kontatu
digu arrain pila bat hartzen zutela pelagikoetan
aritu zenean, “dena nahastuta eta dena hila, eta
ondoren esaten duzu, txikia da, bada botako
dugu... Izugarrikeriak ikusi ditut: arrantzatu-
takoaren %15 gorde eta gainerako guztia ure-
tarat botatzen da. Ados, amua
edo bolintxa bakarrik ez duzu
egiten ahal, baina gutxiago
arrantzatu ahal da, modu zen-
tzudunagoan, eta pelagikoak
kendu egin behar dira, hori
segur”. Kontua zera da, barku
askok produktore handiekin
dutela tratua, arraina tonaka
arrantzaten dute eta horren
araberako tasa kobratzen dute;
gero arrain hori inork nahi ez
badu ere, galtzen utzi arren, gutxiengo bat
kobratzea ziurtatzen dute.

Inguraketa sare handiek ere ustiaketa bor-
titza egiten dute, eta haztegien edo gizentze
kaiolen negozioa ugari zabaldu da Europan.
Leo Belaustegi arrantzaleak ez du begi onez
ikusten: “Erreboiloa (gaur arrain-haztegi-
etan gehien dagoen arraina) kilo bat gizentzeko
hiru-lau kilo arrain pentsu behar du eta kon-



DANI BLANCO



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

traesana da hori, nola da posible kilo bat hazteko itsasoko beste hiru kilo irin jaten ematea? Itsasoko arraina zaintzea eta mantentzea da bidea, itsasoan sortu behar da arraina eta bertatik atera behar dugu, horretarako gune babestuak finkatuz, haztegi naturalak. Baina akuikulturaren atzean interes ekonomiko eta politiko asko dago”.

Arrantza ilegala ere, noski, kaltegarria da itsasoarentzat, eta arrantza guztiaren %20 inguru ilegala da munduan, ikerketen arabera. Ilegala da, esaterako, kuotak ez errespetatzea, hartutako espezieez eta pisuez informazio faltsua ematea, teknika debekatuak erabiltzea... “Legatzaren aferan, gure etsai handienak Ondarroan daude –gaineratu digu urruñarrak–, han badirelako barku batzuk esaten dutenak amua baino ez dutela erabiltzen, baina egunero 20.000 amu botatzen dute, ez dituzte beraien kupoak errespetatzen, gehiegi harrapatzen dute, eta gu zirkuitu berean gaude, amuko legatza harrapatzen dugulako. Badira astero ilegalki deskargatutako legatz tonak Pasaian, Galizian, Ondarroan... eta horrek min handia egiten digu, lehiaren ondorioz oso merke saldu beharra daukagulako, 3 euro eta erdian edo 4 eurotan. Badaude baita ere barku frantsesak baina espainiarrek erosiak, kupo frantsesaren gainean lan egiten dutenak. Lehia horretan tanta bat baino ez gara gu”.

Euskal Herrian, azken finean, eredu industrialak indarra hartu du azken hamarkadetan, barku handiak sustatu dituen diru-laguntza politikak lagunduta. “Baina hegalezetan adibidez teknika bera mantentzen jarraitzen dugu, kanaberarekin”, nabarmendu du Elduaienek. Aldiz, harrapa dezaketen hegala berriz kuotaren %70 teknika erasokorrek erabiltzen dituen Espainiako multinazional bati saltzea erabaki dute aurten Gipuzkoako eta Bizkaiko baxurako arrantzaleek. “Hegala berriz kuota oso gaizki banatuta zegoen eta gure kuota oso txikia

Ziburu-Donibanen, 150 bat arrantzale dira. Gehienek artisau-barkuak dituzte, 12 metrotik beherakoak (ezkerreko argazkian). Arrantza tradizionalaren aldean, sare pelagikoak (hurrengo orrialdean lehenengo irudian) teknika oso erasokorra dira, bidean aurkitzen duten guztia harrapatzen baitute. Azken argazkian, haztegi lrunen, ugaritu den negozioa.

geratu zen –argudiatu du Elduaienek–. Hain txikia, kasik lan gehiago ematen digula etekina baino. Egoera honetan, gasolioaren prezioarekin eta ditugun gastuekin, baietz esan behar izan diogu Mediterraneoko proposamenari. Ekonomikoki arnasa hartzeko balio izan digu, baina urtebeterako akordioa da eta urtea ondo joanez gero agian hurrengoan ez dugu zertan hori egin behar”.

12 miliako babes eremua

Helburua ezin da izan ahalik eta arrain gehien harrapatzea, garbi du Leo Belaustegik. Artisau-arrantzaren alde egiten du: itsasertzetik gertu, tresneria eta aparailu jasagarriekin, arrainari bere ugalketa zikloa amaitzen utziaz –arrautzak ipini baino lehen harrapatzen baita orain–, kasu eginez biologoei ea zenbat arrantzatu daitekeen eta kuota horiek errespetatuz, kofradien kontrolpean. Ondoren, hartutako guztia saltzea da gakoa, bere hitzetan: “Hortik etorriko da elikadura subiranotasuna. Ezin gara ibili Txinatik ekarritako tilapia eta Hego Amerikako legatza jaten, jangela publikoetan umeei Vietnamdik ekarritako panga ematen, hemen arrantzatutakoa portuan saldu gabe geratzen den bitartean. Kontsumitzaileok sentsibilizatzea beharrezkoa da, kostaldeko nahiz barnealdeko izan”.

Ondarroa 12 Milia elkarteko kide da Belaustegi, eta Euskal Herrian kostatik 12 miliako eremu babestua sortzea eskatzen dute: “12 milia horietan, amuekin eta sare txikiarekin arrantzatzea baino ez litzateke baimenduko, itsasoa eta arrain espezieak mantentzeko. Sektorearen aldetik babes gutxi jaso dugu, arrantzaleek uste dutelako euren jardueraren aurka doala, ezingo luketelako eremu horretan nahieran arrantzatu, baina epe luzera beharrezkoa da harrapaketa mugatzea, gure ingurunea haztegi natural bihurtzea. Babesguneak eguneroko arrantza bul-



M. G.

tzatuko luke eta belaunaldi berriak erakarriko lituzke, gure portuetako jarduera ekonomiko eta kulturala berreskuratzuz”.

Arrantzaren Legea, 2013rako prest

“Ezin dugu atungorriarik hartzen ahal, batzuek gaizki jokatu eta dena suntsitu dutelako. Nire barkuarekin ez genuenez 2005ean atungorriarik arrantzatu, orain legeak dio ezin ditudala harrapatu, duela 100 urtetik nire familiak hemen zimarroia hartu duen arren. Suntsitzai-

leek aldiz, subentzioak izan dituzte barkuak erosteko, ondoren porrot eginarazi dituzte barkuak, eta gelditu direnek nahi dutena harrapatu dezakete. Barku handiek nahi dutena egiten dute”, kexu da Imanol Ugartemendia. Legeak handiak hobesten dituela dio, eta txikiak kontrol zorrotzak pasatzen dituztela, handien arau-hausteen aurrean ezikusiarena egiten den bitartean. Elduaienentzat, arazoa da Europakoak ez diren barkuek legez kanpo jokatzeko dutela, kuoten gaindi arrantzatzen



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak

Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balioesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzeko jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozatzen jakitea da. Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.





Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

www.benetakoazgozatu.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANINGITZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

hazi

Landa eta itsas ingurunearen garapenerako Eusko Jauriaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino

dutela, “eta gero arrain hori hemen saltzen da, lehia desleiala egiten digute merkatuan”. Europar Batasunaren legediaren atzean dagoen politikakeria salatu du Belaustegik: “Europak banatzen ditu kuotak, eta interes ekonomiko-politikoen arabera egiten du, Frantziak, Italiak, Erresuma Batuak eragin handia dute Arrantza Batzordean eta horien interesak inposatzen dira, adituek jarritako mugak errespetatu ordez kuotak igo egiten dituzte beti. Legedia ipintzen dute, baina berau betetzeko baliabiderik ez da ezartzen eta azkenean itsasoan ahal duenak ahal duena egiten du. Krisi garaioan, gainera, denak balio duela dirudi eta ingurumenak, naturak eta bioaniztasunak sufritzen dute gehien”.

Europar Batasuna lantzen ari den Arrantza Politika Bateratua 2013rako izango da martxan. Gipuzkoako kofradiak beldur direla aitortu du presidentek, baxurako arrantza beti ateratzen delako kaltetuen, tarta banatzerako orduan. “Itsas zabalekoek botere handiagoa dute, multinazionalak sartu dira tartean, bankuak, akzionistak... eta haien aldeko erabakiak hartu ohi dira. Batzuei ahoa betetzen zaie hitzekin, baina gero neurriak ez dira behar bezala hartzen: jasangarritasuna, artisauek arrantza, kostakoa... ari dira beti, eta gero gure tarta beti da besteena baino txikiagoa, kuota oso txikiak uzten dizkigute, ez gaituzte benetan baloratzen”.

Sektoreko elkarte eta talde ekologista ugari kritiko agertu dira Europak onartu nahi duen arrantza lege berriarekin. Besteak beste, adierazi dute diskurtso berdea ezerezean geratzen



“Pelagikoetan baldintzak askoz okerragoak ziren. Barku ttipiekin arrain gutxi hartzen duzu, gastua ere txikiagoa da eta bururako arazo gutxiago. Niretzat irtenbide ona da”

IMANOL UGARTEMENDIA, ARRANTZALEA

dela, erabaki zehatzik eta parte-hartze jakinik ez delako azaltzen; espezie asko proposamenetik at geratzen dela, horien gainbehera areagotuz; egokitze neurriak artisauek arrantzari baino ez zaizkiola inposatuko; ez duela bultzatzen inguruan inpaktu txikiena eragiten duten barkuak izatea lehentasuna; ez dituela neurri eraginkorrak hartzen arrain hilak berriaz itsasora botatzea saihesteko —ez baitu debekatzen “soberako” arrainen harrapaketa masibo eta bereizi gabea—; edota gizentze haztegien aldeko apustua egiten duela.

Kuota indibidual transferigarriak onartzeko erabakia, punturik polemikoenetakoa izan arren, aurrera aterako dela dirudi. Orain arte, baxurako arrantzan kofradiak banatzen dute kuota itsasontzien artean, baina kuota indibidualekin barku bakoitzak, metro kopuru batetik gora, bere kuota izango luke, eta nahi izanez gero saldu egin ahalko luke. “Europar Batasunak

esan du ez dela diru gehiago emango barkuak hondoratu edo desegiteko, eta hortaz, errentagarri ez zaidan barkua baldin badaukat baina ez badaukat aukerarik desegiteko, zein bide hartu dezaket? Kuota pribatua salerostea. Eta zeinek erosiko ditu kuota horiek? Enpresa handiek ziurrenik, Pescanovak-eta, arrantza eredu jakin bati heltzeko. Larria da, itsasoa privatizatzea dakar, negoziazioen esku uztea”, ohartarazi du Belaustegik.

Ez dira garai errazak, gasolioaren prezioak ere kalte egin die arrantzaleei, baina itsasoa beti izan da lanbide gogorra, eta etorkizuna itxaropentsu ikusten dute elkarrizketatuek. “Oraindik urte asko segituko dugula uste dut, gazteentzat ere alternatiba bat izan daiteke, baina horretarako gauzak ongi egin behar dira. European erabakiak hartzen dituzte gu kontuan hartu gabe eta arazo handia da hori: kasu gehiago egin behar zaio arrantzaleari, ze problema dituen galdetu, eta horren arabera lan egin. Kalte gehien egiten duenak ordaindu behar luke, eta ez batzuen kaltea denon artean ordaindu”, dio Elduaiek. Berdin pentsatzen du Ugartemendiak: “Suntsitzen dutenei ez litzaieke utzi beharko bide horretan segitzen”. Azken finean, bestelako arrantza bidegarria, zentzuduna eta premiazkoa dela frogatzen du berak egunero. ■



Kolapsoa 2048rako

Itsasoaren egungo ustiaketak ez du ez hanka ez bururik. Ikerketen arabera, arrainek birsortzeko duten gaitasuna baino erritmo azkarragoan harrapatzen ditugu. *Science* aldizkariaren azterketak dio erritmo honetan 2048rako kolapsatuko direla arrain erreserbak. Datuen arabera, Europar Batasunak ezarritako tamaina baino txikiagoa duelako edo interesatzen ez zaien espeziea delako, europar arrantzaleek harrapaturiko arrainen %40-60 artean baztertzen dute eta arrantzatzen den guztitik erdia baino zertxobait gehiago baino ez dugu jaten —30 milioi tona arrain alboratzen da urtero munduan—. Areago, europar uren %72 gainarrantzatuta dauden bitartean, EBn kontsumitzen dugun bi arrainetik bat kanpotik ekarria da.


Pierre Hazan

«Ez dut inposatutako bakean sinesten»

Bake prozesuak 8.000ko mendiak dira. Ez dago gailurrik sherparik gabe.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco



Prozesuaren zein puntutan gaude?

Bake prozesu hau aurreko bake prozesuen emaitza baizik ez da. Orain arteko saiakerek porrot egin arren, bakea sendotzeko indarkeria errefusatu beharraz jabetzeko balio izan dute. Abertzale gogorrenak eskusiboki bide baketsu eta politikoen alde egiteko erabakiak heltze prozesu bat eskatzen zuen, eta nazio-

arteko komunitatearen esku hartzeak Aieteko bake konferentzia burutzeko baldintzak sortzen lagundu du. Ezinbesteko mugarria da Aietekoa. Handik hiru egunera etorri zen borroka armatuaren atea behin betiko itxiztat ematen zuen ETaren adierazpena. Horrek euskal gizarte osoak, ezker-abertzalearen sektore guztiak barne, indarkeria errefusatzeko

duela islatzen du, eta ziurrenik, baita Espainiak eta Frantziak eskuz esku eramandako borroka antiterroristak tantoak bereganatu dituela ere. Testuinguru horretan aro berri bat zabaldu da, esperantzaz betea, oraindik ere arazo korapilatsuak konpontzeke dauden arren.

Aieteko adierazpenaren lehen puntua berehala bete zuen ETak. Bigarrenak Espainiako eta Frantziako estatuei elkarriketa abiatzea eskatzen zien; bete gabe jarraitzen du.

Egia da, baina azken hilabeteotako jarrera aldaketak azpimarratu nahi nituzke. Bate-tik, joan den urrian, egun Espainiako gobernu-buru denak pragmatismo handia erakutsi zuen, Alderdi Popularreko goi-arduradun guztiek, Aznar buru, kritika bortitzak egiten zituzten bitartean isiltasunari eutsiz. Bestetik, Espainiako justiziak Sortu legeztatu izana esanguratsua da, mezu zehatz eta jakina igortzen duen konfiantza neurria delako. Azkenik, Espainiako hauteskundeek, gehiengo absolutua duen gobernu berri bat ahalbidetzeaz gain, argi eta garbi utzi dute indarkeria ezaren bideak babes garrantzitsua duela euskal gizartearen. Denentzat berria den ingurumarian gaude, eta esango nuke eragile bakoitza bere tokia eta papera zedarritzen ari dela, estrategiak ez daudela oraindik arras finduta. Antzeko zerbait gertatzen da Parisko Gobernuan ere. Ez dago gai honen inguruko erabateko adostasunik, ez doaz denak arrasto berean, ez dira denak Barne ministroaren ustekoak. Espero dut hurrengo hilabeteetan eragile desberdinak Aietek suposatzen duenaz jabetuko direla, eta arabera urratsak emango dituztela.

Zure baikortasunaren kontrapuntu, atxilotetek jarraitzen dute, Espainiak ez dauka Parot doktrina deuseztatzeko asmorik, preso gaixoek kartzelan segitzen dute...

Trantsizio prozesu batean gaude, eta trantsizio prozesuak ez dira inoiz homogeneoak, koherenteak eta aldebakarrekoak izaten. Eragile bakoitza ez da baitezpada homogeneoa bere baitan, sokak aurrera eta atzera egiten du, eta epe luzera aztertu behar dira mugimenduak. Ulertzen dut ezker-abertzalean antsia zabaltzea, baina ez da ahan-tzi behar aski gatazka zaharra dela, lau hamarkadatik gorako indarkeria bizi izan dugula, eta denbora perspektiba horretatik kudeatu behar dela. Berehalako emaitzak jaso nahi izateak bete ezin diren exijentziak sortzea dakar. Horregatik, emaitzen inguruko itxaropen umila behar dugu, baina aurrera egiteko determinazio irmoa.

Nola ezkontzen dira bake prozesu baten pausokera motela eta gizarte honek denborarekin duen harreman frenetikoak?

Egia da twitt-aren aroan bake prozesu bat ez dela oso sexia. Bake prozesu bat geldoa da, kaotikoa, zaila. Bi bake prozesutik batek porrot egiten du lehen bost urteetan. Horixe da errealitatea, ez makilatxo magikoaren berehalakotasuna. Hori pragmatismo handiz kudeatu behar da, arrazionaltasunez. Bakoi-tzak ulertarazi behar die bere jarraitzaileei nahikeria handia beharko dela, pazientzia izugarria, eta oztopoak gainditzeko egoskorke-ria. Eragileek ezin dute gauek goizera dena konponduta egongo dela saltzen ibili. Bake prozesuen logika ez da hori. Erdibideko konpromiso asko egongo dira, batzuk oso min-garriak, eta bidea ez da batere samurra izan-go. Presoen gaia, edo ETak armak entregatzea zein egitura desmantelatzea oso gai konplexuak dira. Eragile bakoitzak bere interesak dauzka, eta bakerako urratsak ez dira inorentzat kanpotik diruditen bezain errazak izaten. Jokoan dagoenak hori eta gehiago merezi du, ordea.

Orain arte ez bezala, gatazkaren konponbidean lehen mailako protagonistatzat seinatu duzue Frantzia. Estatu batek bestea mugiarazi dezake?

Frantziak beti esan du euskal auzia Espainiari zegokiola, baina Aieteko adierazpenak zuzenean jotzen du Eliseoko aldaba, eta espero dut atea irekiko dutela. Oso gai labainkorrak daude bideratzeko. Horietariko bat, Frantzi-ahar, euren sorterritik urrun dauden 150 euskal preso politikoen hurbiltzea. Guk oso baikorki baloratuko genuke preso horiek Euskal Herritik ahal bezain bat gerturatzea, eta Frantziako Estatu soberanoa izaki, sine-

Nortasun agiria

1956ko uztailaren 15ean Alexandrian (Egipto) sortu zen suitzarra. Egun, Genevako unibertsitatean eta Parisko Sciences Po-n justizia trantsizionaleko irakaslea da. Aurrez, NBEko berriemai-lean izan zen *Libération* eta *Temps* egunkarientzat, AEBetako bakearen institutuko kolaboratzaile nagusi zein Harvard-eko zuzenbideko irakasle, eta baita NBE-n giza-eskubideen goi komisarioaren aholkulari politiko ere. Liburu anitzen egile izateaz gain, bake prozesu askotan hartu du parte, eta Brian Currin buru duen gatazka konpontzeko Nazioarteko Harremanetarako Taldeko sei kideetako bat da.



AZKEN HITZA

Prentsa

“Arazoa baino gehiago, soluzioa da prentsa. Normala da kazetariak gehiago jakin nahi izatea, espekulatzen ibiltzea, eta eragileak presionatzea gauzak azkarrago joan daitezen. Hala ere, prentsak gizartearen normalizazioa nahia islatzen badu, eta horrek eragile politikoak ernatu eta trabak gainditzeko jarreran jartzen baditu, ni pozik”.



tsi nahi dut une egokia dela iruditzen zaionean gisa horretako konfiantza neurri bati bide emango diola. Horrek dinamika bertuteak ekar ditzake, gatazkaren xake-taulan pieza bat mugitzen duen orok nahitaez eragiten baitie beste guztiei.

EAeko legebiltzarrerako hauteskondeek zenbateraino mugitu dezakete xake taula?

Hauteskunde giroa ez da onuragarriena bake prozesuetarako. Alderdi bakoitzak, izatez eta ekitez, bozka ehizarako bokazioa du eta karta oportunistak jokatzeko tentazioa gailendu daiteke. Alabaina, parez pare izan ditudan Euskal Herriko eragile politiko gehienek oso garbi dute exigentzia elektoralak zeintzuk diren, baina era berean, badakite pragmatikoak eta arrazionalak izan behar dutela geroz eta bake prozesu sendogorantz doan norabideari eusteko. Hurrengo EAeko hauteskundeek paisaia politikoa berriz marraztuko dute, Espainian dinamika berria sortzeko aukerak zabalduz. Hori hala, eta Sorturen legeztatzeak zabalduetako bideari jarraiki, garrantzitsuena alderdi guztien arteko elkarrikeria abiatzea izango da.

Hala balitz, biktimen gaia gai-ordenean egongo litzateke.

Biktimak beti dira talde esanguratsua munduko edozein gatazkaren konponbidean. Alta, ez dute sekula talde homogeenoa osatzen, eta euskal gatazka ez da salbuespena horretan. Ez da egia biktima guztiak alderdi politiko baten estoldetan daudenik, nahiz eta alderdi politiko guztientzat biktimen instrumentalizazioa oso tentagarria izan. Biktima bakoitzak dauka bere historia, bere ideologia, bere ingurua, eta pertsonak diren neurrian, garapen bat izan dezakete. Horregatik, oso garrantzitsua da biktima guztien sufrimendua onartzea. Ezin dugu ETÄren atentatueta ia mila lagun hil ez balira bezala segi. Ezin dugu

Espainiako Estatuak urratutako giza-eskubideen aurrean begirik itxi. Demokrazia aurretik zein demokrazian, jende askok galdu du bizia. Horiek oro errealtate ukaezinak dira, baina biktimak egoteak ez du esan nahi bake prozesua bertan behera laga behar dugunik. Iraganaren dimentsioa aintzat hartu behar da, baina etorkizunera begiratzeko, orainaldian bizitzen ikasteko. Ulertu dezaket biktima batzuentzat oso mingarria izan daitekeela, jasangaitza, baina beste biktima asko prest daude euren sufrimendu pertsonalaz gaindiko aurrerabideak urratzeko.

Iraganaren dimentsioaz ari garela, nola ulertzen duzu kontakizuna berehala egiteko alde guztien antsia? Ez al dira aurreragoko lanak?

Gizarte batek bere iraganaren jabe izatea erabaki dezake, baina gizarte bat elementu desberdinen arteko aniztasunak ezaugarritzen du beti. Horregatik, alde guztiak saiatzen dira sendo agertu eta euren errelatoari indarra ematen, berau gailendu dadin. Hori oso sanoa iruditzen zait, dagoeneko ez baikaude konfrontazio armatu batean, konfrontazio ideologiko eta memorial batean baizik. Apurka-apurka hitzak artikulatzen ari dira, eta kontakizun bakarra ez harilkatzeak ez nau batere kezkatzen. Alderantziz, osasungarria iruditzen zait memoria desberdinak agertzea. Amerikako Estatu Batuetako XIX. mendeko gerra zibilak aztertzen baditugu, oraindik ere oso errelato desberdinak egiten dira Estatu Batuen iparraldean ala hegoaldean. Demokrazia baten baitan alta, ideia desberdinak adierazi daitezke, eta aniztasun horrek ez luke arazo izan behar. Funtsean, bata bestearen ondoan bizi ahal izatea da kontua, indarkeriarik gabe, elkar errespetatuz. Horregatik, berradiskidetzeaz baino nahiago dut normalizazioaz hitz egin, eta bakoitzak bere posturak mantendu arren, sanoa iruditzen zait memoria eta enpatia lan hori. Bidearen parte da.

Zein da bide horretan justiziak bete beharreko papera?

Justizia penalaren arloan, aterabidearen atarian, krimenen errudunen aurkako ekinbide judizialek jarraitu behar dutenentz galdetzen da amnistiaaren mozorropean. Galdera juridikoa izan arren izugarrizko mami politikoa dauka, eta eragile politikoei dagokie auzia trenkatzea. Ez dago formula matematikorik, hari mutur anitzek baldintza dezaketen deliberoa da, eta eragile politiko desberdinen arteko jokoak ekarriko du justizia penalak hartu beharreko bide egokienari buruzko adostasuna. Justizia restauratiboari dagokionez, aldiz, iraganaren narrazioa itzultzen gara, eta hor niretzat erlijio bat osatzetik oso urrun dauden eredu andana dago. Egun, munduan, Egia eta Berradiskidetzearen inguruko 40 bat batzorde daude. Hamar baino gutxiagok eman dituzte emaitza asebetegarriak, asko bidean desegin edo porrot entzutetsuak izan dira, baina horrek ez du esan nahi baliagarriak ez direnik. Batzorde horiek, eta justizia trantsizionalak oro har, urteetako gatazkaren ondorioz pitzatutako konfiantza berreskuratzea dute xede, azken hau, justizia penala, egia bilaketa, konponketa, eta ez errepikatzeko bermeen inguruan ardazten delarik. Baina berriz diot, bakoitzak urratu behar du bere eredu, ez dago makilatxo magikorik.

Ez ote da iraganari buruz hitz egitea bezain garrantzitsua etorkizuna ehuntzen hastea?

Denok dakigu bakoitzak etorkizun desberdin bat amesten duela. Batzuek autodeterminazioa nahi dute, beste batzuek orain arteko egitura politikoa, baina hortaz bertako eragile politikoei eztabaidatu beharko dute, ez ni bezalako kanpoko eragileek. Jendeak uste baino askoz paper xumeagoa da gurea. Bake

“Denentzat berria den ingurumarian gaude, eta esango nuke eragile bakoitza bere tokia eta papera zedarritzen ari dela, estrategiak ez daudela oraindik arras finduta”

prozesu bat hamar sarraileko atea baldin bada, bederatzi bertakoek irekitzen dituzte, eta gure esperientziak eta *savoir-faire*-ak ertze-ko hamargarrena zabaltzen laguntzeko baizik ez dute balio. Bertakoek egiten dute gerra eta bertakoek bakea. Eurak dira bake prozesurako baldintzak sortu ditzaketenak, eta eurak eurentzat balio duen bakea eraikitzeko indarra dutenak. Ez dut inposatutako bakean sinesten. Horregatik, bertakoek Euskal Herriaren etorkizuneko egiturari eta iza-teari buruz eztabaidatzeko bidea erraztea baizik ez da gure lana. Zentzu horretan, espero dut Aieteko adierazpen arrakastatsuen lehen urtebetetzeak aukera emango digula bake prozesuari beste bultzada bat

emango dioten eta etorkizun berri bati begira jarriko gaituzten urrats gehiago agertzeko.

Zerk bultzatzen zaitu zu halako ur arreetan sartzeko urratsa ematera?

Azken 25 urteetan gatazka anitz jarraitu ditut, kazetari bezala lehenik, eta bake prozesuetako eragile bezala gero. Azken lau hilabeteetan Kolonbian, Ekialde Hurbilean, Burundin, Nepalén eta Balkanetan izan naiz, eta jabetzen naiz ze gaitza den bakea, jendeak zenbaterainoko itxaropenak dituen eta eragile politikoen maltzurkeriak nola zapuzten duen guztia. Euskal Herrian ez dago Bosnian gailentzen ari den etorkizun ezaren sentimendurik, ez dago Burundin dagoen pobrezia eta ustelkeriarik, edo Nepaleko diskriminazio inpunerik. Hemen aurre-baldintza positiboak daude, beste errealitate batzuekin alderatuta baikor izateko motiboak, eta ni bezala berradiskidetze edo normalizazioaren gaia bizi duen batentzat liluragarria da hori, ur arreetan igeri egiteko bezain liluragarria. ■



Pantaila Globala erakusketa, San Telmo Museoan Irailaren 30era arte

Pantailaren botereak egunerokotasunaren esparru guztietan daude: zinema, telebista, ordenagailuak, telefono adimendunak, tabletak, zaintza pantailak... Eta gure bizitzatan geratzeko etorri dira.

San Telmo Museoa Zuloaga plaza, 1. Donostia-San Sebastián www.santelmomuseoa.com



ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Ni ez naiz idazlea

Jainkoek ez badute deus desegokia egiten, orduan dagoeneko ez dira jainkoak inondik ere.

Esaldi hau, mende eta mende luzeetako moralitatearentzat lehergarria, zentzu etimologikoan iraultzailea, Stéphane Mallarmék idatzia da, gutxien espero daitekeen tokian idatzi ere. Izan ere, gaztetan, bizimodua ingeleseko irakasle eta itzultzaile gisara ateratzen zuenean burutu zuen, mitologiako eskuliburu bat ingelesetik frantsesera itzultzen ari zela.

Jatorrizko bertsioak, normala den bezala, justu kontrakoa esaten du: *"If the gods do aught unseemly, then they are not gods at all"*.

Esaldiak hitzez hitz jarraitzen dio Euripidesen aipu ezagunari. Orduan, poeta frantsesak nahi izan zuen bere burua jainkotzat hartu eta, jokaera gisagabea burutuz, hankaz gora jarri Ongiaren oinarri mendeetakoak? Itzultzailearentzat lege ezin hautsizkoa da jatorrizkoa bere horretan ematea. Adagio ezaguna, itzultzailea traidore dela salatzen duena, ez doa ñabarduretan eman daitezkeen zentzu aldaketa txikietatik haratago. Gaizkile bat (edo jainko bat, hots, sorkuntza osoaren jabetza duen izakia) baino ez zen ausartuko itzulpen batean ezezko bat sartzeari.

Baina ez dago argi, jainkoak existituko badira, gaizkia obratu behar dutelakoa Stéphane Mallarmék nahita idatzia den ala zuzentzaile hiper-zuzen batek gerora sortua, *"si les dieux font rien d'inconvenant"* ikusi eta *"rien"* partikulari *"ne"* bat falta zitzaiola oker irizita.

Beste hipotesi batek eraman lezake pentsatzera ezen zuzentzaile izengabe horrek, Mallarmérena zela jakin gabe, besteak beste, Mallarmérena ez zelako, Mallarméren testua akatsen bila arakatzeari lanbidea zuenak, bere burua jainkotzat hartu eta ezezko bat sartuz ordura arteko moralitatearen aurkako atenta-



JOSU SANTESTEBAN

tua berak burutu zuela, José Saramagoren *Lisboako Setioaren Historia* eleberrian bezala. Euskal irakurleak, Jon Alonsoren itzulpena leituta, gogoratuko du bertan argitaletxe bateko zuzentzaileak Historiako liburu batean baieztatu esaldi bat ezezko bihurtzeko erabakia hartzen duela, eta horrekin historia bera eta bere istorio propioa aldatzea lortzen duela, banakoak (irakurleak?) Kontakizun Handian eragiteko eta eraldatzeko daukan ahalmenaren aldarrian, ez bada idazle sakralizatuaren figuraren kontrako ikonoklastia betean.

Idatzitakoaren jabea ez da idazlea gehiago. Gauza jakina da, nekatzeraino errepikatua, idazlea, jainkoa bezala, hil dela. Norberak idatzitako edozer gauza oker itzul baitetzake (baita poetarik handienak ere), oker zuzen baitetzake (baita ARGIA-ko testu orraztailerik zintzo eta arduratsuenak ere) edo oker uler baitetzake edozein irakurlek. Nola dakit nik, modu arranditsuan esateagatik, hitz hauekin eraiki dudana zutabe honek zutik iraunen duela nire eskutik kanpo?

Horregatik ez bada ere uko egiten diot idazlea hitza nire buruari aplikatzeari. Apalkeriaren adierazgarritzat har daitezkeela onartzen dut, edozer gauza interpreta daitezkeela onartzen dudana bezala. Idazten duen norbaitek idazten duela baino gehiago ez luke esan beharko. *Martutene* eleberrian, esaterako, Martin idazleaz hau hausnartzen du Julia bere itzultzaileak (eta bikoteak): *"Liburuez ari dira [Lynn eta Martin]. Pentsatzen du honezkero neskak bada kiela idazlea dela. Nahiko luke jakin nola esan dion. I write? Nolanahi ere ziur da ez diola I'm a writer esan, hori sekula ez"*.

Uztaileko arrats bero honetan ez zait deus desegokiagorik bururatzen (jainkotasuna une batez berreskuratzeko). ■



irudia:
Antton Olariaga





USAIA
MURRIZKETAK
ETA BESTE
EBASKOAK,
UDAN ONARTU
OHI DITUGU...

... jendeak
OPORRETAN
dauden
BITARTEAN...

NON DIRA
GURE
XOXAK?!?



KONTUA DA ORAIN ARTEKO LAPURRE
TENGATIK, INOR GUTXIK HARTU
AHAL IZAN DITU OPORRAK...

Pako Sodupe

IDAZLEA

Eskola-umeen euskarazko adierazkortasuna!

9

urteko semeak egin berri du hiru eguneko txangoa. Zertan eman duzue denbora? Batzuek antzerkia egiten, eta besteek *futbolinean*; ni *futbolinean*. Antzerkian, seme, aukera daukazu beste pertsonaia batzuk izateko, besteren larruan sartzeko, beste modu batera hitz egiten ikasteko edo aritzeko behinik behin. Baina, aita, ez dute testua ikasi, antzerki fisikoa egin dute, hara eta hona ibili dira...

Futbolinean onenak gu lauok izan gara, aita! “Bi kontra bi” jolastu gara, urlia “superona” da “bolillakin” ematen, sandia “baselinetan” eta ni “trallazo”ekin “gol fantasmak” sartzen. Gero denak guri begira, eta lau onenak “partidazoa” jokatu genuen, “golazoak” sartu genituen, bederatzi eta bederatzi, eta azkena guk sartu genuen; orduan pozarekin futbolina mugitu nuen (kristona...!).

Ez dakit zenbat aldiz esan diodan “bi bi” ez baizik eta “bi eta bi” esaten dela euskaraz, gaztelaniaz ez bezala —orain ondo esaten du gehienetan—; eta beste horrenbestetan, “bi bitara” edo “bi biren kontra”, baina honetan gehiagotan egiten du huts. Komatxoan artean ipini ditudan hitz edo esapide horiek behin eta berriz esaten ditu, hitz horiek bereganatua diote bihotza, neke da horiei aurre egitea. Euskaraz-



DANI BENITO



Gazteleradunek lortu dute

D ereduan ikasten duten

haurrek horrela hitz egitea.

Guk, euskal gurasook

galduta ote dugu euskara

gatz-piperduna, ba ote dugu

geuk espresibitatearik

euskaraz ari garela?



ko salbuespena: “Tripa-jotzen” izan liteke. Zer da tripa-jotzea, seme? Barillarekin superfuerte jotzea eta orduan begira dagoenak tripakoa hartzen du, tripan kolpea.

Gazteleradunek lortu dute D ereduan ikasten duten haurrek horrela hitz egitea. Guk, euskal gurasook galduta ote dugu euskara gatz-piperduna, ba ote dugu geuk espresibitatearik euskaraz ari garela? Ala umeek bezala, geuk ere erdaratik lortzen dugu espresibitatea? Irakasleek eurek ba ote dute adierazkortasunik euskaraz, eskolaumeei txertatu ahal izateko? Eta euskal hedabideetako esatariak? Kontua da, nik uste, ez dugula lortu: “Efektua(re)kin jotzea, (gurpila) ematea, baloi-harrotzea edo bola-loratzea, zartakoz mamu-gola sartzeta, partida itzela (mundiala, berebizikoa), gol (mundiala...)” nagusiaraztea.

Gurasook, beharbada, gutxi(egi) hitz egiten dugu haurrekin; eskoletan, beharbada, hizkuntzaren adierazkortasuna ez da behar bezala lantzen; eta hedabideen aldetik, menturaz, gutxitxo ditugu euskaraz. Baina zer euskara klase dugu hori! Erdaraz egitea baino hobea!

Bai, bai!, baina zer euskara klase dugu hori! Badugu hor zeregina guraso, irakasle, esatari eta erakundeek. ■



TXANDAN

Igor Estankona



Profeta da Euskal Herrian. Kontzertu onak eta txarrak txalotu dizkiogu. Gurtu egiten dugu gurean, eta ez da guztiz sana berarekiko dugun maitasun itsua. Baina abestien letrek duten ereserki sinpleen itxura folk horrek liluratu egiten gaitu. Aspaldi eskatu nion Ruperrri abesti bakar bat esateko, eta erantzun zidan: “Dylanen edozein”.

Dylan Thomas poeta galesak beste berrogeita hamar urte deroaz berpizturik beraz, 1962ko martxoaren 19an Bob Dylanek *Bob Dylan* argitaratu zuenetik. Ez Dok Amairukoek ere zor diote zerbait, Mixel

Dabilen harria

Labeguerie entzunez iritsi zitzaientetik aire hura: “Zenbat itzuli emanen du bonbak,/ Hondarrean dadin hondar?/ Zenbat belaunek dio iritziko/ Armen etsaiari koldar?/ Zenbat galbide behar dun iragan,/ Uso zuri hego-baldar?/ Haizean dabil erantzun oro/ Haizean erantzun oro”.

Momentu bakoitzerako abesti bat daukana, desengainatu gaituena baina inoiz ez engainatu, haize hori bezain badezpadako Dylan, joan da Woody Guthrie faltsu hori, maitagarri hori; ea nondik jotzen duen haren ufadak hurrengoan. ■



Eneko Olasagasti

ZINEGILEA

Udako ekaitz baten faseak edo

Guk pelikula bat egin nahi genuen. Eta egin dugu. Bost zuzendarik leiho bana zabaldu nahi genuen. Errealitate, pertsona, preso, bost historia kontatu. Hainbat eta

hainbat daude gure herri txiki honetan. Belaunaldietako bizitza izan den neurri berdinean izango da kontatu beharrekoa, belaunaldietarako lana. Guztion ase-min eta onarpenerako. Hainbat eta hain kolore diferentetakoak baitira... Guztiok gaude zerbait ikasi beharrean bestearengandik. Horregatik, eta guztiagatik, guk bagenekien ez ginela pelikula bat bakarrik egiten ari. Erosoagoa, ongi ikusiagoa, “zuzenagoa” delako zenbait historia kontatzea eta gurek horietatik, eta beste batzuetatik, gutxi zeukaten.

Eta pelikula bat egin nahi genuen eta egin dugu, neguan. Bakoitzak bere leihoa ireki eta hor barneratu da. Errealitatea, pertsona, preso... Ez da hibernazioa izan baina hortik ere pasatu gara. Erditza udaberriaren amaieraren karietara izan da. Umea ederra da, benetan. Bueno, gurea izanda zer esango dugu. Uda garaia ezin hobea da txikia txikitxo denean oraindik. Eguraldiak laguntzen du kalera ateratzeko, bere lehen hilabeteak goxoan pasa ditzan. Baina badakigu denok ere ipar parte honetan eguraldia zein ankerra, eta “kapritxosoa” izan daiteken, uda bada ere.

Momentu batetik bestera, uda gozatzen hasi berritan, hor ilundu da zerua itsaso



DANI BLANCO

aldetik. Izaturik begiratu dugu ez dakigulako nola gertatu den. Zeru urdina zena bat-batean belztuta azaldu da. Gure begien ñiñietan tximistaren ziztadak marraztu dira... Ez. Benetako tximistak dira hodei beltzak zuritzen. Ekaitza dator. Ez gara harritu ere. Ekaitzak horrela ematen dira eta uda sasoi honetan errazago.

Babesa bilatu dugu gertuen zegoen txiringitoan. Eta eman digute. Jendea eskuza-bala da, are gehiago egoerak larriak direnean, eta jaio berri bat tartean badago zer esango dizuet. Ez dakit umerik duzuen baina ez baduzue jakizue horrela dela.

Hala ere, udako ekaitzekin gertatzen dena ezaguna zaigu. Beste kontu bat litzateke aldaketa klimatikoarekin zerikusia izango balu, ez. Baina udako ekaitzen prozesua jakina da... Horregatik, orain trumoiaren zarataren zain gaude. Zenbat eta beranduago entzun badakizue ekaitza urrunago dagoela. Zain gaude. Oraindik ez da ezer entzuten. Bestela ere, ekaitzaren prozesua betikoa da. Tximista, trumoi, euri jasa eta ondoren barealdia. Eta gainera, herri honetan, eguraldia dela eta ez dela, ez gara etxean geratzen direnetakoak. Momentu honetan inportantea txikia ez bustitzea da. Eta busti behar badu euriak harrapatzen gaituelako ahalik eta gutxien izan dadila. ■



Orain trumoiaren zarataren

zain gaude. Zenbat eta

beranduago entzun

badakizue ekaitza

urrunago dagoela.

Zain gaude

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Murrizketekin jarriak



XDZ

I

DOINUA: Abokatuak deitu berri dit.

La Rojak gorritz jantziagatik
espainiar kale gorriak,
Mariano Raxoi ez zen gorritu
iragartzean neurriak:
zulerik gabe geratu arren
gerrikoen belarriak,
alperrik dira eredu berri
bat sortzeko aldarriak;
batzuek hartu zutena, orain
eman behar du gerriak.
Horren kontura jartzera noa
bertso-sail berri-berriak,
murrizketei eginak eta
murrizketekin jarriak.

III

DOINUA: Aita izena.

“Funtzionarioei paga bat kendu”
izan zen hurrengo dosi,
sosak gutxituz nahiz eta ezin den
kotsumitu ez erosi.
Olentzero zein Hiru Errege
Mago eta Santa Clausi
bizitza laster egingo zaie
betirako langabezi,
Gabonetako pagarik gabe
ezingo baitira bizi.

V

DOINUA: Pello Joxepe.

“Zinegotziak jaits daitezela”
prestazioen gisara: (bis)
hauteskundeak gastu bezala
ikusten hasten bagara,
laster alderik ez da egongo
guretik diktaturara.

II

DOINUA: Albizturtikan Bidaniraino.

“Langabetuen gastua jaitsi”
izan zen lehen erregela,
lana galtzeko izan behar baita
gorria edo ergela;
PPko batekin ezkontzea
ondo irteten da bestela...
Ezin liteke esan, ordea,
sintzeroak ez direla:
iragartzean prestazioen
neurria jaitsiko dela
aho batez aditu baitzen han
“izorratu daitezela”.

IV

DOINUA: Ari naizela, ari naizela.

“Aurrerantzean BEZa igo bedi”
izan zen hurrengo araua;
“Premirik bada, BEZa igo beti”
izan dadin erretraua.
Hala epeka ordainduko da
zinera joateko gaua,
eta gramoko poltsatxoetan
salduko da Cola Caoa.

VI

DOINUA: Glu, glu, glu, glu.

Murriztu eta mozteko aro
honek amairik ez badu,
Aturri eta Ebroko marrak
mozten hasiko gara gu.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Liburuak

Uda betean gozatzekoak



Oporren usainean gosetzen den horietakoa bazara, irakurtzeko izan ez duzun denbora orain hartuko baduzu, hona hemen ARGIAko erredakzioko kideek luzatutako gomendio sorta. Irensteko modukoak iruditu zaizkigu denak. Gura bazenu.

Egungo krisiaren azalpena


EGILEAREN ikuspegi keynesiarra galbahe, XX. mendeko ekonomiaren historia kontatzen da liburuan. Kontaketa modu-gatik, oso interesgarria da ekonomia gustuko izan baina ekonomiaren historian sakondu ez duenarentzat. Lau bloke nagusitan banatzen du historia hau: 1914ra arteko lehen globalizazioa, bi mundu gerren arteko garai berezia, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo ongizate estatuaren hamarkadak eta egungo globalizazio edo mundializazio prozesua.

Lerroetan aurrera egin ahala, irakurleak laster harrapatzen du zein garrantzi handia duten ekonomiaren alorreko gertae-rek historiaren bilakaeran, eta, zalantzarik gabe, oso lagungarria da egun bizi dugun ekonomi krisia ulertzeko. Krisi garai bakoitzak bere ezaugarriak eta tes-tuingurua badu ere, nekez esan ahal izan-go du inork herrialde aberatsetan gerta-tzen ari den finantza krisia berria denik.

Liburuak era samurrean ulertarazten du XX. mendean mundu mailan eman-dako hazkunde ekonomiko itzela. Auto-rea globalizazio zale amorratua da, baina ikuspegi kritikoz aztertzen du bere bila-kaera eta globalizazioa kontrolatu behar-ko litzatekeela uste du. Gabezia garran-tzitsu batzuk ere baditu liburuak: adibidez, oso lerro gutxi eskaintzen dio ikuspegi militarrek globalizazio horretan izan duen garrantziari, eta ekonomi haz-kundearen tamainak planetaren jasanga-rritasunean dituen ondorio tamalgarriak aipatu ere ez ditu egiten.

Xabier Letona

SAIAKERA



Capitalismo Global.
El transfondo económico de la historia del siglo XX.
Jeffrey A. Frieden.
Memoria Crítica,
2006.
726 orrialde.

LEKUKOTASUNA

Bakarmortuko kronikak
Mikel Antza / Ataramiñe.



Nahi gabe idatziak

BAKARMORTUKO KRONIKAK Mikel Antza presoaren liburua da. 2004ko urritik 2005eko ekainaren bitartean idatzia. *Idatzi nahi ez nituenak* da liburuaren azpiztitulua. Idazle izan gabe, nekez idatziko luke preso dagoen inork tamainako lekukotasunik. Antzak isolamendu erabatekoa jasan zuen, tortura psikologikoa, bakartasuna, baita hainbat gose greben ondoriozko suntsipe-na ere. Idazleak bizitakoa narratzea erabaki du, baita imajinazioak eskaintzen dion zoria bertsotan paratzea ere. Ezintasunen eta mendekotasunen espazioan, emaztea eta semea bihotzean, herria gogoan, kantu ezagunak buruz ikasteak lagundu dio bizi-tzen presoari. Espetxeetako hiztegiaren berri ekarri du. *Bakarmortua* Antzaren hitza da. Kartzela, labirintoaren labirintoa izaki, berau deskribatzen duen hitza da *Bakarmortua*. Hiztegikoak dira ere *Behatzxuloa*—Sonia Gonzalez idazleari hartutako maile-gua— edo bere esperientziako *Guantamou-lins*; Guantanamo gogoan. *Herrimina* eta *maitemina* hitz arruntak dira preso dagoena-ren hiztegiaren.

Mikel Asurmendi




Janariaren eskandalua

SALAKETA ETA SOLUZIOAK. Bietatik du Tristram Stuart Londresko aktibistaren liburuak –gaztelaniazko bertsioa irakurri dut nik, *Despilfarro. El escándalo global de la comida*–. Zifrak beldurgarriak dira: kontsumitzen dugunaren ia erdia zaborretara doa Europan eta AEBetan; saltoki handi batek 500-600 tona jaki botatzen ditu urtero, harrapaturiko arrainen %40-60 itsasora hila bueltatzen dute arrantzale europarrek, eskola jangeletan zerbitzatutakoaren %30 inguruk zakarrontzian amaitzen du, EBko herritarrok egoera onean dauden jakien ia %20 baztertzen dugu etxean... Baina zenbakien mozkorralditik harago, elikagai katearen panorama argigarria eskaintzen du lanak, hornitzaileek, supermerkatuek, nekazaritza uztek, arrantzak, kontsumitzaileek... atzean ezkutatzen dituzten jardura zentzugabe eta burugabeak, jana alferrik galtzea eragiten dutenak.

Onena, saihestu dezakegun errealitatea dela. Hartu beharko liratekeen neurriez eta geure esku dagoenaz mintzo da Stuart. Aholku burutsuak biltzen ditu, eta jakin badakigu ez dela erraza egoerari buelta ematea, baina guk geuk egin dezakeguna ez da gutxi. Stuartek berak supermerkatu inguruetakoa kontainerretatik arrantzatutakoaz elikatzen eman ditu urteak eta harrigarria da zein otordu aberatsak egin daitezkeen baztertu den janaria berreskuratuz. Bere esperientzia baliatuta, ekintza ugari erakusten dizkigu, teoriatik praktikara egiten du salto, eta batez ere horrek egiten du interesgarri eta sinetsgarri liburua.

Mikel García Idiakéz



SAIAKERA

La sal de los cerros.
Stefano Varese.
Casa de las Américas,
2011.

La sal de los cerros

KUBARA badoakizu lagun bat, ekar diezazula sinfalta. Bestela, saiatu Perun 2006an argitaratu edizioa esku-ratzen; besterik ezinean, ingelesezko *Salt of the mountain* daukazu Amazonen. Stefano Varese klasiko gure artean ia ezezaguna irakurritakoan, lehen edizioa argitaratu 1973 hartan gaztea zinen horrek madarikatuko duzu lehenago leitu ez izana. Gaur baldin bazara gazte, garaiz zaude historiagile eta antropologo ezkertiar konprometitu handi horren eskutik ezagutzeko bost mendez inbaditzaile europar zuriei –tarte fusilez bezala ebanjelioz armaturik hurbilitako euskaldunei– aurre eginez bizirautea lortu duen etnia txiki amazoniar baten historia eta izatea. Atzeritarrek *campa* deitzen dieten Ashaninka jendeen epopeia. 1966-1968an egindako ikerlanaren lehen bertsioari liburuaren bigarren zatian Varese erantsi dio geroztik Ashaninkez plazaratu artikuluen bilduma. Marcos komandantea edo Evo Morales nola ulertu Varese gabe?

Pello Zubiria Kamino



Stefano Varese.

Demokraziaren alde

ZABALTZEN ARI DEN USTEAK dio, herritar arruntok ahal genuenaren gainetik bizi izan garela eta horregatik datozela orain estutasunak poltsiko eta aurrekontuetara. Modu aski bitxia da bizi dugun hondoratze ekonomikoa esplikatze, urtetan aberats eta famatuen bizimodua eduki dugula pentsarazten baitu eta gainera, ez du galdetzen zein arrai, kristo eta demonioko erantzukizuna izan duten benetako aberats eta famatuek 2008tik honako ziskoan.

Ez da, dena den, pentsamendu ildo berri-berria ere, Jacques Rancièrek duela zazpi urte eskribitutako liburu hau leitu ondoren konturatu naizenez. Kendu gehiegizko luxuak eta jarri gehiegi erabakitze gaitasuna, utzi gainontzeko argumentazio guztia bere horretan: hara hor beste krisi bat, Mendebaldearen baloreek bizi dutena esplikatze zenbaitek bilatu duten formula, dagokiguna baino gehiago erabaki omen dugula eta horrek berekoi eta indibidualista bihurtu ei gaituela, kontsumoan besterik ez pentsatzeraino.

Intelektual eta agintari batzuek demokrazia gehiegi-keria gisa ulertzen dutela dio Rancièrek saiakera labur eta zorrotz honetan; herriaren boterea deserosoa eta

SAIAKERA

La haine de la démocratie.
J. Rancière. La Fabrique, 2005.




are, eskandalagarria gertatzen zaiela gaur egungo demokraziaren kritikariei.

Ikuspegi horiei aurre egin nahi die Aljerian jaiotako filosofo frantsesak eta horretarako, demokraziaren definizio baterako kakoak ematen ditu, politika, errepublika eta ordezkaritza bezalako kontzeptuekin lotuz eta kapitalismo monolitikoaren postulatuekin batera, ikuspegi marxista klasikoaren hainbat ideia ere auzitan jarriz, kontingentziaren mesedetan. “Demokrazia da, beste ezeren gainetik, politikaren kondizio paradoxiko hori, zilegitasun orok azken zilegitasunaren faltarekin topo egiten duen puntua” dio, liburuko pasarte batean.

Berritzaile eta subertsibo izaten jarraitzen du demokraziaren ideiak Rancièren azalpenak irakurri ostean. Ez da batere liburu txarra, geroz era erabaki gutxiago har ditzakegun garai hauetarako.

Gorka Bereziartua



Zamorako apaiz-kartzela.
Hainbaten artean.
Tlalaparta, 2011.

SAIAKERA

Iraultza sakristian

1960KO HAMARKADAN Francoren errejimenak joko kanpo harrapatu zuten seminario eta apaiz gazteek. Hiruzpalau urtetan apaiztegiak irauli zituzten, itxialdiak egin, errepresioa salatu, manifestuak kale-ratu, ETArekin kolaboratu... Euskal Herri osoan gertatzen ari zen aldaketarekin bat egin zuten apaiz ugari, eta horietako askok Zamorako kartzelan amaitu zuten.

Liburu honetan testuinguru hori guztia ederki asko azaltzen zaigu. Zamorako kartzelan egondako hamaika pertsonaren

testigantzek utzitako zapo bibentziala dute orriok, lurpean egindako egiazko tunelen eta ihesaldi saiakeren suspensea, lapiko itogarri baten leherketaren bolbora usaina... Liburuak mugak gainditu ditu, eta kartzela hartan izan ziren Espainiako Estatuko beste herrialdeetako askok ere estimatu dute halako bilduma.

Gertakizun haiek bertatik bertara bizi izan zituzten 25 lagunek egina da liburua –tartean Juan Mari Arregi ARGIAko kolaboratzailea–, eta Angel Zelaietak eta Edorta Jimenezek koordinatu dute.

Urko Apaolaza

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Jean Baptiste Baigorri: ingelesez jaio den euskal abenturazalea

URTEA galdera honekin zabaldu zuen Hitzen Uberan blogak: Komikia, loraldi baten atarian? Jaki-na da komikia ez dagoela batere sustraituta Euskal Herrian (batez ere Hego-aldean) eta oso album gutxi argitaratzen dela. Ez da harritzekoa, beraz, iaz zortzi liburu kaleratu izana loralditzat hartzea. Eta panorama eskas honen erdian, aurkeztu nahi dizuedana bezalako “lore” bat aurkitzea, basamortuan oasi bat topatzea bezalakoa da.

Duela gutxi Londrese-ra egindako bidaia batean, Design Museo-ra (Diseni-uaeren museoa) sartu nintzen. Bertako liburu-dendako aleei begirada-txoa botatzen ari nintzela, komiki sorta bat ikusi eta bat-batean sekulako ezus-tekoa berauetako baten izenburua irakurtzean: *Jean Baptiste Baigorri 1: Cramond Island*. Izenari erreparatuta, egilea euskalduna zen, dudarik gabe: Irkus M. Zeberio. Komikia ingelesez, baina tartean euskarazko esaldi eta erreferentzie-kin! “Euskal egile ezezagun baten komikia ingelesez eta horrelako leku berezi batean! Ez da hasiera txarra!” nire artean. Hurrengo egu-netan, beste liburutenda batzuetan ere ikusi nuen komikia. Ikusten zen ondo banatuta zegoela.

Interneti esker jakin dut egilea donostiarra dela eta duela 9 urte joan zela Bartzelonara. Hain zuzen ere, bertako Euskal Etxean aurkeztu zuen komikia maiatzean. Bere webgunean, orden berriaren aldeko ilustratzaile eta komikilaritzat definitzen du bere burua, ez dela narrasti humanoidea erantsiz. Eta goiburutzat duen *Jaun gabe eta legerik ez* leloak, bat egiten du Baigorri protagonistaren pentsaera paramar-xista libertarioarekin.



KOMIKIA

Jean Baptiste Baigorri 1: Cramond Island.
Irkus M. Zeberio.
Nobrow, 2012.



Komikiaren estiloa ere libertarioa da. Neurri batean, Estatu Batuetako underground estiloa, *El Vibora* bezalako komikiak edo TMEOren inguruko egile batzuk ekarri dizkit gogora. Kolore lauak darabiltza. Txuri beltzari kolore bakarra –gorria edo horia– eranstendio orri askotan, beste orri edo binetetan kolore horiek edota berdea konbinatzen dituelarik.

Nobrow argitaletxearen orrian irakur dezakegunez, Baigorri, poeta, askatasunaren aldeko borrokalaria eta superheroi existentzialista da.

Ama hilzorian duela jakitean, sasiesklabutzan lan egiten duen sandwich lantegitik ihes egiten du. Orduan, berarekin erdi maiteminduta dagoen ugazaba haragi-jario gizenegiak, bere morroi zatar beldurgarriak bidaliko ditu bere bila. Tartean Karl Marxen berragiztatze bat ere ezagutuko dugu.

Bere abentura epiko eta zentzugabe honetan, talde antikapitalista batean sartuko da, iraultza pizteko asmotan eta helburu nagusi batekin: Eskoziako kutxazain automatikoak, masak ekintzara bultzatuko dituzten era honetako olerkiz betetzea: buru bat koroatua izan daitekeeno, moztu ahal izango zaizkie buruak koroei. Liburuan ez da aipatzen, baina apustu egingo nuke Baigorri Lucio Urtubiari buruzko filma eta liburuak irakurri dituela!

Komikian ugariak dira ikur anarkistak. Bakuninen izena ere ikusiko dugu paretetan margo-tuta eta txalupa batek, Marc Legasse eta Jakue Pascualen liburu mitikoaren izena darama: Anarkerria.


Istorioan erreferentzia geografiko gehiegirik ez badago ere, Cramond Island Eskozian kokatzen da. “Free Scotland” irakurriko dugu paretan batean eta Ingalaterrako erregina burua moztuta ageri da Bank of Scotland-eko billeteetan. Han-hemenka, Euskal Herriari buruzko erreferentziak ere ageri dira: Baigorri eta Etchegaray protagonisten deiturak, Nafarroako kateak –erdian A anarkista dutela–, edo euskarazko bi esaldi: “Zelako krisi, halako bizi” etxe baten atarian irakurriko dugu eta Baigorriren amak hilzorian “Bihotza banoa. Amaia da hasiera” esango du.

Zoro kuadrilla zoragarri honen abenturen jarraipenaren zain gertutuko gara, euskarara ere itzuliko duten esperantzaz.

Kike Amouarriz

HAUR LITERATURA

batbirulau!
Anjel Lertxundi,
Antton Olariaga.
Galtzagorri elkarteak,
Alberdania, Erein, Igela,
2011.



Siestak festa

IZEBAK festa bat dira. Eskaintzen dizkizuten ordu horietan esprimitzen dute jolaserako gogoak, zerbait diferentea egiteko indarra, iloben erreakzioak tentatzeko pikardia... *Batbirulau!* izan liteke izeba rockeroen albuma, orri bakoitzean sorpresa bat zabaltzen duena, dena hitz-jolas, dena irudimentsu... Umeek eskutik kentzen dizuten horietako bat, “hurrengoa nik aukeratuko dut” tirabiran jartzen dituen horietakoa. Orriz orriko eta lerroz lerroko irakurketa militarra puskatzen duena, orri eta lerro denak hankaz gora ditu eta. Dela liburuiko izeba-ilobak sutondo giroan daudenean, dela kanpinera joaten direnean, dela mapa mundira murgiltzean, dela mozorroekin trabestitzean, jolaserako bide ematen digu etengabe liburuak: kantu bat kantatzeko, esatera zaharrak bertsionatzen aritzeko, antzerkia egiteko, marrazteko...

Liburua bazkalosteko orduak festa bihurtzeko probokazioa da. Umeekin ordu pare hori zukutzeko gogoak sortzen duena, zerbait diferentea egiteko poza pizten duena, haurren erreakzioak tentatzeko pikardia ematen diguna. Horrelakoak zenbat aurkituko dituzu, batbirulau?!

1984-1986koa zen jatorrizko edizioa (Erein), Galtzagorri Elkartek Klis-Klasikoak bilduman berreskuratu duena.

Mila esker, Lertxundi eta Olariaga, haurrekin literaturaz litxarrerian aritzeko eskaini diguzuen goxoki honengatik.

Estitxu Eizagirre

Egarri egunak Martutenen

GARAI BATEAN, bizikletak ziren udako. Orain, liburuak. Idazten dutenak irakurtzen dutenak baino gehiago diren garaian, desagertzeko zorian dagoen espezie horretakoa zaitugu. Bejondeizula. Honezkerok bada-kizu zein plazer den bidea, urre bila abiatzea. Poza eta ilusioa daramatzazu aldean. Zoaz, bada, honako edo harako denda edo liburutegira. Hartu eskuan halako eta halako liburua, irakurri kontrazalak, kontuz eta kasu emanez irakurri ere, eta abiatu irakurketa espedizioan. Norberak aukeratutako liburua duzu biderik ederrena. Aurkikuntza-zen poza! Dena dela, gainerako arloetan ez ezik liburutetan ere zalantza orokorrak bizi zaituen zozoetakoa bazara, noragabe bizi bazara, tori mapa: Koldo Izagirreren *Egarri egunak portualdean*, artelan hutsa, irakur ezazu Gernikan dituzun Carmelo Ortiz de Elgearen margolanak gozatzen dituzun jarreraren. Eta tori mapa, bis. *Martutene*, Ramon Saizarbitoria. Horra literatura-zen bi arkitekto. Esan beharra ote zegoen?

Miel A. Elustondo

Zer da maitasuna?

URTEAK igaro ditu Mari Luz Esteban antropologo eta feminista basauriarrak maitasuna aztertzen. Azken mendeetan mendebaldeko gizartean gaina hartu duen “maitasun pentsamenduaz” idatzi nahi zuen liburua; teoria, sinbolo eta ildo multzoa kritikatzeko. Maitasuna eraiki eta bizitzeko modu horrek, genero, klase eta etnia harreman desorekatuak eragiten ditu. Desioa, nortasuna eta subjektua bera ulertzeko modu zehatz eta heterosexuala azpimarratzen du. Lehen zatian teoria daukazue, eta bigarrenan, hamabi emakume feministari eta bi gizoni egindako elkarrizketak; maitasunaz haien hausnarketak eta bizipenak. Baita kontraesanak ere.

Onintza Inureta Azkune

NOBELA

Egarri egunak portualdean.
Koldo Izagirre.
Susa, 2012.

SAIAKERA

Crítica del pensamiento amoroso.
Mari Luz Esteban.
Edicions Bellaterra, 2011.

Komunako gogoetak

POLIZIAK deuseztatu zuen komuna autogestionatu batean, Frantziako Estatuko Tarnac herrixkan, idatzi zen liburu hau, irudipenezko kolektibo baten izenean sinatuta. 2005ean Paris inguruko auzune marjinatuetan pizturiko oldarraldia oinarri, azken bi mendeetan kapitalismoak moldatutako gizarte honi errotiko kritika egi-

ten dio. “Gizartearen hitzekin deskribatzen diren arazoez konponbiderik ez dutelako” etsipenezko amorru ekintzailez idatzitakoa da ezker eta eskuinaren dikotomia tradizional antzutik haragoko eztabaida pizteko aldarri hau.


Axier Lopez



Heldu den matxinada.
Batzorde ikusezina.
Itzultzaileak: Oier Gonzalez,
Zigor Garro. Txalaparta, 2011.

SAIAKERA

The people of the abyss.
Jack London.
1903.



Beste inperio hori

KAZETARITZAREN maisulanetako hau euskaraz ez, baina irakurleak inguruko erdaretara itzulita erraz aurkituko du. Britainiar Inperioaren urrezko garaietan,

1902. urtean, progressoarene izenean munduko bazterrak nahastuz era neurrigabea zen ari zenean amaitu zuen Jack London kazetari estatubatuarak Londres eredugarrian. Lehen egunetan ikusitakoak eraginda, metropoliaren aurpegi iluna munduari erakustea erabaki zuen.

Zazpi aste egin zituen hiriburuko auzorik txiroenean langabezian zegoen marinelaren paperean. Lehen pertsonan, estilo azkarrean eta aho bizarrik gabe kritika latza eta analisi politikoak tartekatzen ditu autoreak. Giza miseriari duintasunez egindako argazkia eskaintzen du Londonek, injustizia sozial erraldoiaren lekuko eginez irakurlea. Inongo zalatzarik gabe kazetaritzaren lanbideari zentzua ematen dion lan horietako bat.

Lander Arbelaitz

Baztertutako haurrak, eta amak

SASIKUMEAK, tornuko umeak, abandonuak, expositoak... 1903tik 1980ra Zizurkilgo Fraisoro etxean bazterrean utzitako milaka haur hartu zituzten, eta Eva García bi urte-tan bildutako datuen bidez azaltzen du Fraisororen sorrera eta bilakaera. Baina protagonisten ahotsa ere erabili du, Fraisoron lanean aritutakoen eta haurren idatziak eta testigantzak jasota, baita amenak ere. Egileak, azalean, amak aurretik jarri ditu, eta, mamian, hurrekin batera (eta maiz haurra izan aurretik) Fraisoron amak ere hartzen zituztela azaldu du, gizarteak haurrak eta amak baztertzen zituela. Hala, Fraisoro etxean ezkutatu eta isildu nahi zen errealtate gordin deserosoa argitara eman du.

SAIAKERA



Fraisoroko amak.
Fraisoroko haurrak.
Eva García Magriñá.
Larramendi Kultur Bazkuna, 2011.


Nagore Irazusta Barrena

Errealitatearen peskizan

HIGGSEN BOSIOIA aurkitu izanak –behin betiko baieztapenaren faltan– kapitulu bat itxi du mekanika kuantikoaren historian. Manjit Kumar filosofo eta fisikariak idatzitako *Quantum*-ek historia horren hasieraren berri ematen du. Joan den mendeko lehen

herenean gertatutako zientzia-iraultza deskribatzeko, protagonisten biografiak erabili ditu Kumarrek hari gisa. Hala, egin zuten lana ez ezik, hobeto ezagutuko ditugu Einstein, Bohr, Planck eta beste askoren nortasunak. Azalak salatzen duenez, Albert Einstein eta Niels Bohren arteko eztabaidaz luze jardun du egileak liburuan; ez da ahaztu behar Einsteinek ez zituela inoiz onartu mekanika kuantikoaren hainbat alderdi, haren garapenetako funtsezko lana egin bazuen ere. Ez da liburu samurra, baina bai oso interesgarria. Eta oso egokia zientzialari handi haiek ere pertsonak zirela gogorazteko, beren ahuldade eta guzti.

DIBULGAZIOA



Quantum.
Manjit Kumar.
Elhuyar, 2011.


Unai Brea



argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

Itxaro Borda

«Iragana mitifikatzea gure jaidura nagusietarik bat da»

Itxaro Bordak Amaia Ezpeldoi detektibe lesbiana ezagunaren azken abentura kaleratu berri du, *Boga Boga* eleberria. Bakean utzi arte, Bizi nizano munduan, Amorezko pena baño eta *Jalgi* hadi plazara lanen ostean, Baionara eta Lapurdiko kostara garamatza ikertzaileak. Lesbiana detektibeen generoa bertoko ezaugarriez janzten asmatu du Bordak.

IRATXE ESNAOLA

Euskalduntasunaren definizio hertsatua izan da nagusi, orain arte, Amaia Ezpeldoiren aburuz. Euskal mundu ikuskera hegemoniko bat sentitu izan du, ETArena eta zenbait abertzalerena.

Amaia Ezpeldoiren liburu guztietan ematen den kritika bera landu dut eleberr honetan ere. Zenbait euskal abertzalek funtzionamendu baztertzailea izan du eta epaile gisa jokatu du gainerako euskaldunekiko. Azken 30 urteetan Iparraldean abertzale batzuek ukan duten eragin ez baikorra kritikatu nahi nuen. Ene literatura ibilbidean hainbestetan egin dudana bezala.

Ez da hertsadura bakarra. Ezpeldoik Nolwen Kergelen polizia kapitainarekin duen harremanari aurreiritziz beterik ekiten dio, hura frantses polizia delako.

Euskaldunok aurreiritziak ditugu kanpotarrei begira. Gureak ez direnei begira. Beti erraten dugu: Gora gu eta gutarrak! Eta besteak, zer? Ezpeldoik islatzen du euskaldunaren baitan arrotza gurutzatzean gerta daitekeen eztabaida. Niri ere, euskaldun gisa, zenbait lekutan zalantzak sortu izan zaizkit. Hau ote da ene egiazko lekua? Zer pentsatuko dute besteek hemen ikusiz gero?

Barne polizia bat edukitzea bezala.

Bai. Badugu super ni zigortzaile bat gure baitan, bereziki, euskalduntasunari loturikoa. Besteari beldur diogu. Emeki-emeki, epaileak desagertuz joango diren arau subkontzientea leundu eta apalduko zaigula uste dut.

GALek eta ETak 1980ko hamarkadan Iparraldean belaunaldi osoak markatu zituztela diozu. Iragan mitifikatuaren beldur zara eta berrirakurketa kritikoa proposatzen duzu.

“Badugu super ni zigortzaile bat gure baitan, bereziki, euskalduntasunari loturikoa”


Iragana mitifikatzea gure jaidura nagusietarik bat da. Gertaera bortitzenak ere mitifikatu egiten ditugu, iraganean gaurko bermeak aurkituko bagenitu bezala. Iparraldean gauza oso gogorak gertatu dira, eta batzuetan, gureak ez ziren arazoengatik eta arrazoiengatik. Argi esanda, Hegoaldeko borroka hona esportatu zelako. Baionatik azken 30 urtean iragan diren talde guztiek urrakoak utzi dizkigute, eta nolabait, odolustu. Orain, erakunde armatuak armak utzi dituenen badugu ordua ahoan bilorik gabe historia aztertzeke. Ez da erraza. Ez dakigu gaurkotasuna nola aztertu. Nik, literaturaren bidez, fikzioan jarri nahi izan ditut alde guztietako mintzalariak, beren ikusmoldea eman zezaten. Iritzi polifonia bat nahi nuen. Horixe da, hain zuzen, errealtatean falta zaiguna. Eta literaturak badu abantaila bat errealtatearekiko: aurrera dakioko.

ETaren armen uztea sarritan nabarmentzen da eleberrian, iritzi polifoniarako giltzarri bezala.

Zalantzarik gabe. Aukera eta gakoa da eta gako horrek ateak ireki ahal ditu. Beharbada, ikusmolde naifa dut, baina politikaria ez naizenez, naiftasuna zilegi zait. Historiari berriz begiratzeko aukera da. Bai zientziaren aldetik, bai fikzioarenetik. Egoera berria oso garrantzitsua da, nahiz oraindik ez jakin berritasun honetan nola moldatu. Urte luzez pentsatzeko beldur izan gara, eta pentsatu dugunean, beste pentsamendu orokor eta indartsuagoen makuluek ibili gara.

Kale garbitzailea da Ezpeldoi eta lanbide horrek sistema kapitalista bortitzaren ondorio larriak pairatzen dituztenak ikustea ahalbidetzen dio.

DANI BLANCO



Bizi baldintzen okerragotzea islatu nahi zenuen?

Karrikak garbitzen ematen du denbora Ezpeldoik, baina ez hori bakarrik. Helburu sozialaren artean lehen mailan du bere lanbidea. Metaforikoki ere badu garrantzia. Kaleak garbitzean munduaren, hiriaren, herriaren zaborrekin temetzen da. Ogibide mespretxagarria irudi duena, premiazkoena da. Kontsumo gizarte kapitalista ikusteko eta kritikatzeko aukera ematen dio Ezpeldoiri. Eta deshazkundera aldarrikatzeko ere bai, esate batera, Baiona-Angelu-Miarritze artean autobusez ibiliz beti. Lehen lau nobeletan kotxea pertsonaia bat gehiago zen. Honetan ez. Badira alternatibak beste mundu bat sortzeko.

Erreferentzia lesbikoz betea dago liburua. Hala-beharrez, atzerrikoak dira denak, salbuespenak salbuespen. Ari gara Euskal Herriko lesbianok erreferentzia propioak sortzen?

Oraindik herabeak gara. Eskerrak atzerriko irudi dirdiratsuak baditugun! Hala ere, azken sei zazpi urteetan ari dira literatura pertsonaia lesbikoa plazaratzen. Ikerketak ere egin dira, hala nola, *Desira desordenatuak* [Utrisque Vasconiae, 2010], zeinetan literaturaren gure

"Gay jendea, eta bereziki lesbianak, ghettoetan bizi dira ezein adin izanda ere. Urte gutxian aldatuko dela uste dut, baina lesbianen mundua, oraindik, horrelakoa da. Zail da Baionan bi neska elkarri musuka ikustea karrikan".

istorioa jorratzen den eta guretzako figura erakusleak aurkitzen diren. Kattalin Elizegiz edo Milia Lasturkoaz oroitzen naiz, nahiz ez lesbiana izan. Irudiak errekuiperatzea da funtsezkoa. Bestaldetik, hiztegi lesbikoaren errekuiperatze lanetan ere ari gara, harremanetarako eta amodioa egiteko baliatzen diren esamoldeen bila.

Errekuiperazio lana da hiztegi hori edo sortze lana?

Biak ala biak. Arantxa Urretabizkaia edo Amaia Lasa bezalako idazleek tradizioa hasi zuten, beren poema eta ipuinetan giro homorotikoak txertatuz. Eta egun, lesbianen aipamenak badira eta erreferentziak metatzen ari zaizkigu.

Argitaratzen diren makina bat eleberrir lesbikotan protagonisten perfila gaztea, zuria, klase erdi altukoa, profesionala eta ederra da. Bestelako ezaugarriak ditu Ezpeldoiren lagun arteak. Jendartearen lagin bat da 50 urte inguruan dabilen lagun taldea. Beltza da Prezios, judutarra Ilse Traumberg, musulmana Zoko-Tunisiako iraultzaz geroztik burka janzten du bere askatasunaren izenean-; pin-up bular handia da Devi. Adina, lanbidea eta jatorria kontuan hartuz gero, gutxitan adierazi izan da horrelakorik detektibe lesbianen eleberrietan.

Ezpeldoiren lagun arteak ez dio modelo heterosexual normatiboak familiaz egiten duen definizioari jarraitzen. Krisi garaioan bestelako elkartasun modeloak aldarrikatu behar ditugu?

Oso garrantzitsua da jatorrizko familatik kanpoko harremanen sarea. Izan Euskal Herrian, izan munduan. Baliabide teknikoekin harremanetan egon gaitezke bai lesbianen komunitatearekin eta bai munduarekin. Ez gara ohartzen duen garrantziaz. Bizpahiru aldiz gertatu zait bizitzan lagun eta adiskideirik gabe geratzea. Sarea berriz osatu behar izan dut leku batean edo bestean. Bide ederra da norberaren hazteko eta hezteko. Irauten, bizitzeko molde berriak asmatzen laguntzen digu eta molde horiek bizitzen. Azken bi nobeletan agertzen da lagun taldearen ideia. Eta aurrerantzean ere agertuko da.

Gonbida ditzagun irakurleak Ezpeldoiren abenturara.

Irakurketa berez da on. Asko ikasten da, batez ere, ezezagunak zaizkigun giro eta herrialdeez. Amaia Ezpeldoiren bara-bara etengabea da euskal herrietatik, kalaka etengabean dabil jende eta bizimodu ezberdinen artean. Kuriositate horretan aurki dezake irakurtzeko plazera irakurleak. ■



Ezpalak

JON TORNER

Gaixo dauden presoei buruzko dokumentala egin du Etxeratek



KIRRULI KULTUR ELKARTEA

GAIXOTASUN larri eta sendaezinenak dituzten presoiei buruzko dokumentala egin du Etxeratek. *Gaitz isilduak* izeneko filmak hamalau pre-

soren bizipenak jaso ditu. “Hamalau gaixotasun dira, hamalau egoera, hamalau bizipen. Baina guztiek dute zerbait elkarrekin: larriki gaixorik egon arren, espetxean jarraitzen dute”, azaldu du Etxeratek ohar batean. Kasu horietan guztietan presoek oinarritzko eskubideak urratuak izaten ari direla salatu du Etxeratek eta senideek egoera hauen aurrean sentitzen duten “ezintasuna” sentitu daitekeela gaineratu du. Inma Berriozabal santutxuarra da gaixotasun larria duen presoetako bat. Berriozabalek 61 urte ditu eta gaitz pluripatologikoa du, Jaiki Hadi gaixo dauden euskal presoek egoeraren jarraipena egin eta laguntza ematen dieten sendagileen elkarteak jakitera eman duenez. Besteak beste, diabetes mellitus II, B hepatitis, bronkioetako asma, psoriasis, belaun protesia, hipertentsioa, sinusitia eta insomnio kronikoa ditu.

‘Lur’ entziklopedia Internetez deskarga daiteke osorik

LUR Hiztegi Entziklopedikoa eta Lur Entziklopedia Tematikoa osorik deskarga daitezke Internetez, Open Data Euskadi webgunetik. 1991 eta 1995 urteen artean argitaratu zen hiztegia, 10 liburukitan banaturik; eta 1999an entziklopedia tematikoa, hamairu liburukitan. 2011n hasitako bidea borobildu du horrela Open Data Euskadik. Iaz, euskarazko Wikipedian 11.000 artikulua berri sareratu ziren Lur entziklopediaren edukiekin, eta aurtengo udaberrian entziklopedia zein hiztegia sarean kontsultatzeko aplikazio informatikoa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Entziklopediak deskargatzeko: <http://opendata.euskadi.net>.

Pasazaite argitaletxe berriak bere lehen liburua kalera-tu du: Andrej Longo italiarraren (argazkian) *Hamar*, Josu Zabaletak euskaratua. Napoliko ikuspegi gogorrena




erakusten duten hamar egoera erretratatu ditu Longok liburuan. Argitaletxearen aurkezpen ekitaldian Ion Olano idazleak adierazi zuenez, narratiba liburuak eta euskarara itzuliak izango dira guztiak, euskal irakurleekin eta euskararekin “konpromiso argia” dutelako. Itzultzailearen lanari garrantzia eman nahi diotela azaldu zuen, ez dela “soilik kredituetan agertzen den izen bat” izango. Toki berezia emango diote argitaletxearen webgunean, baita antolatzen dituzten jardueretan ere. Atzerriko literatura euskaratuko dute, batez ere argitaratuak izan diren herrialdeetan irakurleen “onespena” irabazten jakin dutenak, nahiz eta nazioartean “oihartzun handirik” ez izan. Argitaletxearen beste sustatzaileetako bat Xabi Queiruga gali-ziarra da.



José Mendiague

(1845-1937) Hazparnen (Lapurdi) jaio eta Ameriketara bizi izan zen olerkari, bertsolari eta euskaltzaleari buruzko pastoral eskainiko du Arrokiagako herriak

uztailaren 29an eta abuztuaren 5ean. Mendiagueren rola bi lagunek jokatu dute, gaztea zenekoa Beñat Larrorik eta heldua zenekoa Rene Oihenartek. Haren emaztearena, berriz, Xantiana Etxebestek egingo du. Orotara 3.500 lagun inguru esertzeko tokia izango da Arrokiagako herritarrek eginiko zurezko jarlekuetan. Leku gehiagoren beharra izanez gero ondoko belardian ere kokatu ahal izango dira. Pastoral arratsaldeko 15:30ean hasiko da baina, aurretik, pastoraletako partaideek kantatutako meza (10:30ean) eta denei irekia den bazkaria egingo dira. José Mendiaguek euskarazko lan ugari idatzi zituen eta horietako batzuk Montevideoko (Uruguai) *Euskal Erria* aldizkarian argitaratu ziren. Bestalde, Piarres Xarritonek 1992an Mendiagueren idazlan guztiak batu eta liburu batean argitaratu zituen.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Blues maitale baten apustua

IZAN BADIRA interes ekonomiko eta turistikoak atzean izan gabe jaiotako jaialdiak, makrokontzertuen kulturatik aldendu eta gustuko musika eta maila handiko musikariak eskaintzea helburu duten jaialdiak. Hein batean, abiapuntu horri eusten dio oraindik ere Hondarribiko Bluesaldiak, eta hori du balio handiena. Nazkatuta zegoen Carlos Malles hondarribiarra, hain gogoko duen musika zuzenean entzuteko urrutira joan beharraz nazkatuta, eta talde horiek herrira ekartzea erabaki zuen. Udalaren babesarekin, Blues Hondarribia Musika Elkartearen laguntzarekin eta ahalegin handiarekin, aurrera atera zen lehenengo edizioa. Jendearen harrera ona ikusita, Udalak diru gehiago jarri du ordutik, baina boluntario lanak oinarrietako bat izaten jarraitzen du.

Pasio eta talde lan horri esker entzun ahal izan ditugu uztailaren Eric Sardinas, Robert Cray, Sharrie Williams, Zora Young edota Hondarribia Blues saria jaso duen Tail Dragger. Eta entzun ahal izan ditugu, aurreko sei edizioetan, Johnny Winter, Solomon Burke, James Cotton, Willie 'Big Eyes' Smith eta Pinetop Perkins, beste askoren artean –iaz zendu ziren azken biak–. Zaleen gozamenerako eta kuriositatez hurbiltzen garenontzako, aukera paregabea da bluesaren izen handiez –bluesaz oro har– gozatzeko. Giro berezia sortzen da, musika doinu tarteka malenkoniatsu tarteka biziak, tronpetak eta sakonak, perkusio erritmoak, ahots beltz sakonek, bluesak duen estetika interesgarriak... Hondarribiko kaleak zipiztintzen dituenean.

Doan eta aire librean, Bentako karpa handian dira emanaldi jendetsuenak, gainerakoak neurri txikiko agertokietan egiten dira, herrian barreiatuak. Apezpiku plaza da begikoen dudak lekua, Alde Zaharreko



Tail Dragger musikariak jaso du aurten jaialdiaren txapela, Bentan eskainitako kontzertuan.

eliza atzean. Xarma berezkoa du, eta aulkietan ez ezik, belardian eta karelean eserita, balkoitik adi edo harri-galtzadan gora paseoan entzun daitezke saioak, lasai ederrean, jendetzarik gabe.

Rockin' Blues Gospelaren printzesaren ahots indartsua, JW Jonesen gitarra erakustaldia, Huckleberry Finn boskotearen parranda giroa, Playing For Change bandaren estilo uztarketa izan ditugu aurten, besteak beste. Zazpi urteren ostean, mailaz gain esango nuke filosofia eta grina mantentzeko gai izan dela jaialdia, eta ez da makala.





XORROXIN IRRATIA

BEHIKAKA.COM

ZOKETA MUNDIALA !!

BOLETOAK 5 EUROTAN ESKURAGARRI!

948 581 374 · www.behikaka.com

uztailaren 29 an

ELIZONDOn

18:00etan

Ihesi

Danubio, hamaika nortasuneko ibaia

LARRAITZ ARANDO

Argazkiak: Larraitx Arando/Garikoitz Iturbe

Betidanik gustatu zaigu bizikletaz bidaiatzeak duen xarma berezia. Bizikletetatik herrialde eta inguruak beste modu batean begiratzen ikasi dugu. Hona hemen Danubio ibaiaren ertzetan egindako ibilbidean pilatu genuen sentrazio bilduma.



IAZKO UDAN, guraso izan berri ginela, bizikletaz bidaiatzen jarraitu nahi izan genuen. Hori dela eta, urtebeteko haurrekin bizikletaz egiteko ibilbide egoki baten bila hasi ginen. Aproposa iruditu zitzaigun Danubio bide herrikoia.

Txirrindazaleentzat klasikoena

Bide honek badu oihartzuna txirrindularien artean; baliteke Europako zikloturistentzat bide ezagunena izatea. Ibaia ardatz hartuta, Europa erdialde eta ekialdean barrena paisaia zoragarriak eta kul-

tura tartekatzen dituen bide erosoak da. Erosotasunaz gain, ibilbidean zehar prezio eta estilo guztietara egokitzen diren jan eta lo egiteko aukerak daude. Gainera, Alemaniako eta Austriako zatietan behintzat, ez dago inolako galbiderik. Horren

guztiazen baturak bilakatu zuen Danubio gure erronka. Behin ere ez ginen garbaitu hara joateko erabakia hartzeaz.

Abiapuntua: Stuttgart

Europako maparen gainean gure ibilbiderako traza nagusia marraztu genuen, marra kurbatua, Danubioren sorburutik hasi eta Budapestera. Alemania, Austria eta Hungariatik igarotzen den zatia, alegia. Halere, traza aske utzi nahi genuen, puntu finkoetara lotu gabe. Gerora, bizitza propioa hartuko zuen.

Opor sasoia heltzeaz bat, bizikletak kartoizko kaxetan sartu eta hegazkinez Euskal Herritik Stuttgartera salto egin genuen. Gauak ilundutako hiri alemaniar batean lur hartu genuen. Jende urduriaren joan-etorriak inguratzen gintuen. Gu ere urduri. Ilun. Haurra gosetuta. Bizikletak kaxetan. Azken trenak martxan. Lo egiteko tokia bilatzea bilakatu zitzaigun xede nagusi. Eta hirian barna gure ekipaiarekin sartzeko modurik errazena bizikletak muntatu eta pedalei emanda mugitzea zen.

Hurrengo goizean berehala ohartu ginen herri arrotz batean geundela. Tranbiaren inguruko argibideak eman zizkiguten udaltzainak, *fast food* usaina, arkitektura ezberdineko etxeak, hizkuntza, jendearen tankera...

Ibaiazen iturburuaren bila... baina okerreko trenean

Horrelakoetan, aklimatazio txiki bat egitea gustuko dugu. Gauden herri horretara ohitu eta bertako jende, janari eta azpiegiturek nola funtzionatzatzen duten ezagutzea. Hori egin ondoren, iturburua Stuttgartetik 120 kilometro ingurura daukan Danubio ibaia gure obsesio bihurtu zen. Gehiago itxaron gabe, tramankuluak trenean sartu eta Oihan Beltzaren ondo-ondoan dagoen Donaueschingen hirirantz abiatu ginen.

Trena martxan, okerreko trenean sartu ginela ohartu ginen; Ulm hirira bidean gindoazen. Hasia zen, bada, mapa gaineko traza bere kabuz hitz egiten, nortasun propioa hartzen. Eta hala, Ulmetik ekin genion bizikleta gaineko abenturari.



Regensburg eta Straubing arteko etapan, Ulmetik abiatu eta bosgarren egunean.



Goian, Steunheim eta Neuburg artean geldialdia egiten. Behean, Danubio ibaia Ulm hirian. Alemaniako etapei dagozkie orrialde honetako hiru argazkiak.



FRANZFOTO-CC BY SA

Datu praktikoak

Hegazkinez:

Nora: Stuttgart (Alemania).
Itzulera nondik: Budapest (Hungaria).

Bizikletak Euskal Herritik eramateko: Kutxetan. Gurpilak aire gabe eta pedalak kenduta. Itzulerako bidaian erabiltzekoak Budapesteko bizikleta denda batean aurkitu genituen.

Iturburura nola gerturatu:

Stuttgartetik ibilbide hasierara trenez gerturatu daiteke. Alemanian trenak bizikletak barruan eramateko egokiturik daude.

Ibilbidearen zailtasuna:

Erraza. Laua. Aldapa gutxiko ibilbidea.

Bide motak: Bidegorriak, pista lasaiak, lokaztutako pista zatiren bat. Zati motzak dira trafiko ondoan igaro beharrekoak.

Seinaletika: Alemania eta Austriako zatian oso argia. Hungarian berriz, ez dela hain argia adierazi ziguten.

Lo egiteko aukerak: Ibilbide osoan lo egiteko leku ugari. Aterpeak, *Zimmer frei* (alokatzeko gelak) eta ostatuak. Prezioa: 40 euro (bi pertsona eta gosaria).

Kanpinak ere ugari.

Aurrez erreserbarik egin gabe ere, ez dugu lekua aurkitzeko zailtasunik izan.

Jateko aukerak: Elikagaiak saltzen dituzten denda eta supermerkatuak herrietan eta hirietan. *Zimmer frei* askotan sukaldea dago. Bidean plater konbinatuak: 6-8 euro.

Hizkuntza: Alemana (Alemania eta Austria). Ingelesarekin erraz moldatu daiteke. Hungarian hungariera, toki turistikoetan ingelesez ongi moldatzen dira.



Budapest, atsedeen egunak.

Alemania zatia


Alemania hegoaldean dagoen Bavaria *land*-etik igarotzen da Danubio. Etapa gehienak lasaiak eta lauak dira. Hasi bezain pronto ohartu ginen Alemaniak oso garaturik dituela bizikletaz ibiltzeko azpiegiturak. Herri eta hiri guztiak daude bidegorriz loturik, eta hiri barruetan badira zebrabide bereziak, seinaleak, bizikleta irudiak semaforoetan...

Harrigarria da ibaiaren nortasuna nola aldatzen den ibilbidean zehar. Ikusgarria, halaber, inguruak ibaira egokitzeko izan duen gaitasuna. Alemaniako tartean Danubioren aurpegi ezberdinak ezagutu genituen. Hasieran zereal soroetatik eta zuhaitz hostotsuen ingurutik igarotzen den ibai bare eta emanorra ikusi genuen. Tarteka ordea,

herri koloretsuetan sartu eta irteten den ibaiak alai bilakatzeko gaitasuna zuen. Hiri handietan, berriz, berdeguneetan atsedeen hartzen duen Danubio zabala ikusi genuen. Eta aurpegi itsusia ere badu batzuetan: Grosse-Mehring inguruetan, zentral termikoen tximinia erraldoien ondoan bizi den ibai iluna.

Ibaiaren nortasunaz gain, tarte honetako Alemania eta alemaniarrrak oso interesgarriak dira. Alde batetik, Bavariako historiak identitate berezia ematen die bertakoei. Bestalde, ibilbideko herri eta hiriek eskaintza kultural zabala dute: hainbat garaitako arkitektura, museoak, kontzertuak... Bizitasuna.

Sentsazio horiek guztiek indarra ematen ziguten pedalei eraginez kilometroak erraz egiteko. Eta konfuratu orduko, Alemania eta Aus-



Mauthausengo kontzentrazio esparrua, ibilbidearen Austriako zatian.

triaren arteko mugara heltzen hasi ginen.

Bat-batean, bizikletarion kopuruak gora egin zuen. Akabo lasaitasuna eta bakardadea. Behin eta berriz elkarrekin topo egiten genuen aurpegi ezagunek; familiak, adinekoak, gazteak, taldeak... Giro alaia izan zen nagusi Alemaniako azken zatian. Izan ere, bidearen zati ezagunenera gerturatzen hasi ginen. Alemaniako Passau hirian, mugan bertan, hasten baita Danubioko bide klasikoa.

Austria, paisaia basatia

Austrian sartuta, guztiak berdintsu jarraitzen du. Herri koloretsuak, hizkuntza bera, argi seinalatutako bideak... Bideko giroan, ordea, sekulako aldaketa nabaritu genuen. Zikloturistentzat klasiko bihurtu den Passau-Viena tartean sartuak ginen, eta hori oso agerikoa zen.

Zati honek osagai interesgarriak ditu: paisaia basatia, mahastiz ingu-

ratutako Erdi Aroko herriak, Mauthausengo kontzentrazio esparrua, atsedeen leku erosoak, Viena... Agian horren guztiaren baturak egiten du ibilbideko zati hau hain ospetsu.

Harrigarria da ibaiaren nortasuna nola aldatzen den ibilbidean zehar. Ikusgarria, halaber, inguruak ibaira egokitzeke eduki duen gaitasuna

Danubio, tarte horretan, basati bihurtzen da. Mendi altuen artean eta baso sakonetan barrena sartzen da, jira eta bira harroak eginez, eta Schögen bezalako meandro dotorea sortuz. Batzuetan, meandroen artean, ibaia txalupaz gurutzatzera

behartuta egongo da txirrindularia.

Zati basati horri Linz hirian esan genion agur. 2009an Europako kultur hiriburu izendatu zuten hiri handi, moderno, monumental eta kulturaz betea da Linz. Hortik kilometro gutxira, Mauthausengo kontzentrazio esparruaren ondotik pasa ginen. Iragan ilunagatik ospetsua den leku hori ezagutu nahi genuen, eta a bazterrean utzi eta barrura sartu ginen. Ibilbide bera egiten ari ginenetik, ez ginen ziklista bakarrak izan.

Zati honetan, ikusgarriak iruditu zitzaizkigun Wachau-ko mahastietan sortzen diren pasaia. Oraindik ere tontorretan zaindari jarraitzen duten gaztelu desitxuratuak azpian, mahastiz inguratutako Erdi Aroko herri txiki eta dotoreetatik igaro baikin.

Eta halako batean erabat aldatu zitzaigun ingurua. Etxe pilaketek, urbanizazio masiboak, trafikoak, obrek... hiri erraldoira gerturatzen ari ginela adierazi ziguten. Konturatu orduko, Vienak irentsi gintuen.

Vienatik Budapestera trenez

Kontrako noranzkoan zetozen bidaiarien bitartez, Vienatik aurrerako bide eta seinaleak kaskarragoak zirela jakin genuen. Horrez gain, trafikodun errepideetan luzaro ibili beharko ginela ere adierazi ziguten. Nahiko arrazoi ziren planak aldatzeko. Viena lasai ikusi eta Budapestera trenez abiatzea erabaki genuen. Eta Budapesteko egonaldi lasaiari esker, Euskal Herrira indarberrituta heldu ginen. ■



**LIZARRALDE SOINUA
TXALAPARTA, S.L.**



**SOINU PROFESIONALA
EREMU HANDITARAKO
MEGAFONIA**



Tel. / Faxe 943 226 977 • txala@txala.euskalnet.net • 01012 GASTEIZ

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeke prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)




SIGACUS

943 453 588 • www.sigacus.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Esnea ematen duen abere. Ahalmena, boterea. 2. **Argazkian:** Usurbilgo auzoa. Samarioaren sinboloa. 3. Sobera, gehiegi. Hilaren alde egiten den ospakizuna. 4. Zurrutada. Bost gehi bat. 5. Estrontzioaren sinboloa. Agintzen zaiona muzindu gabe egiten duena, mantsoa. Edo. 6. Laguntza. Ekaitz. 7. Zein lekutatik. Bestearen zoritxarrak deitoratzera bultzatzen gaituen sentimendua. 8. Zuzen ez dagoena. Gaitzesgarritzat hartzen den maitasuna.

Goitik behera:

1. Ukendu. 2. Edateko beharra. 3. Haserre. Tarte, garai. 4. Indioaren sinboloa. Sendo, irmo. 5. Ahoz aho. 6. Egitan. Dezimetro. 7. Saldu aditzaren infinitiboa. Deiadarra, auhena. 8. Esnez egindako elikagai. 9. Zerbait hala izango delakoan. 10. Bukaera. Emakumezko izena. 11. Zeinek. 12. Kolore. 13. Ume, sein. 14. Atera, irten. 15. Feria, azoka (Bizkaian).

Zailtasunak iristean

Ea norbaiti lagungarri gertatzen zaion istoriotxo hau. Agidanez, Winston Churchillek lehen ministro kargua utzi zueanean, botereak bere ondorengoari emateko, bien arteko bilera pribatua antolatu zuen. Bilera horretan, Churchillek bi gutunazal eman zizkion, honako azalpenekin batera:

– Bi gutunazal hauek oso egoera larrian sentitzen zarenean bakarrik zabalduko dituzu. Aurrena lehenengoa zabaldu, eta egoerak ez badu denbora tarte laburrean hobera egiten, bigarrena. Nik neronek baldintza horietan jaso nituen,

eta baldintza berberetan ematen dizkizut zuri.

Gutunazalak jaso eta urte batzuetara, Churchill ondo-rengoia krisi sakon baten erdian egokitu zen eta pentsatu zuen iritsia zela lehen gutunazala zabalteko tenorea. Barruan orri bat zegoen, esaldi honekin:

– “Bota erru guztiak nire bizkar gainean!”.

Agindutakoa bete arren, egoera ez zen batere hobetu eta handik bi astea bigarren gutunazala zabalteza erabaki zuen. Begiak arranpalo, hauxe irakurri zuen:

– Prestatu bi gutunazal!

Sudokuak

Erraza

	5	8			1	9	3	
1		7			2	9		5
4		9			7	5		2
					8	3		4
5				7		6		1
8	7		1	4				
	8		9	3		2		5
3	9		6	5		8		4
	4	5	2			6	9	

Zaila

7								
1	9				3	8	7	
		3			7	9		
	5		6		8		1	
	6		3		9		5	
		4	7			2		
	8	1	2				3	4
								6

Soluzioak

6	6	8	1	2	5	7	4	3
7	4	5	2	1	8	9	3	6
4	1	8	7	9	6	3	5	2
5	3	9	6	8	1	7	2	4
8	7	3	1	4	2	5	6	9
1	8	9	6	7	5	3	4	2
2	5	8	4	6	1	9	3	7

Erraza

Zaila

2	7	5	9	3	4	1	8	6
9	8	1	2	5	6	7	3	4
6	3	4	7	8	1	2	9	5
8	6	2	3	1	9	4	5	7
4	5	7	6	2	8	3	1	9
5	2	3	8	6	7	9	4	1
1	9	6	5	4	3	8	7	2
7	4	8	1	9	2	5	6	3

Ezker-eskuin: 1. Behi, Eskua. 2. Aginaga, Sm. 3. Lar, Hileta. 4. Tragoa, Set. 5. Sr. Ozama, Nahiz. 6. Aitua, Denborale. 7. Nondik, Erruki. 8. Oker, Mañaketa. **Goitik behera:** 1. Baitasmo. 2. Egari. 3. Hira, Une. 4. In, Gotor. 5. Ahotan. 6. Egiaz, Dm. 7. Sal, Adia. 8. Esneki. 9. Ustean. 10. Arna, Bea. 11. Nor. 12. Arre. 13. Haut. 14. Iltz. 15. Zeta.

Osasuna

JUAN LARRAZ

Nola hartu aurre jaiotza goiztiarrei?

ERDITZE GOIZTIARRA da jaiotza-inguruko gaixotasun nahiz heriotza-tasen arrazoi nagusia. Zenbat eta goiztiarragoa izan jaioberria, orduan eta arrisku handiagoa arazoak izateko (ikus taula).

Gaur egun, laguntza bidezko ugalketa-teknikekin asko gehitu da haurdunaldi anizkoitzen tasa.

Teknika horiekin lortzen diren haurdunaldien ia %45ean bikiak sortzen dira, eta %7an hirukiak edo gehiago. Laguntza bidezko ugalketa-teknikak eta ama adinean aurrera joatea dira gaur egun haurdunaldi anizkoitzak gehitzearen bi kausa nagusiak.

Prematuritate-tasak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Espainiako Estatuan, adibidez, zifra ofiziala %9koa da, eta AEBetan %13koa. Arazoa aski larria den arren, prematuritate-tasa apenas aldatu den azken hamar urteotan. Historikoki, prematuritatea murrizteko egin izan diren saio eta ahalegin guztiak etsigarriak gertatu dira. Amak bere jarduera gutxitzea, ohean atsedena hartzea, umetokiaren uzkurraldiak gutxitzeko tratamendu medikua, eta antibiotiko bidezko terapia luze-zabal erabilitako tratamenduak izan dira, baina ez dute arrakastarik lortu.

Azkenaldian aurrerapauso garrantzitsuak izan dira prematuritatearen prebentzioan. Ikerketaren lerroak bi izan dira funtsean: alde batetik, inoiz garaiz aurreko umeren bat izan duten emakume haurdune-

Haur oso goiztiarren etorkizuna

Pisua (gramotan)	500-750	751-1.000	1.001-1.250	1.251-1.500
Bizirik irauten dute	%55	%88	%94	%96
Osasun arazo larriak dauzkate	%65	%43	%22	%11

tan egindako saiakuntzak. Erditze goiztiar bat izan duen emakumeak hurrengo erditzea ere goiztiarra izateko arrisku handiagoa izango du.



NEREA SAINZ DE MURIETA

Haurdun talde horrekin egindako ikerketek frogatu duten bezala, amari haurdunaldiko 16. astetik aurrera progesterona emateak %35ean murrizten du prematuritatea errepikatzeko arriskua. Progesteronak ez dauka inolako alboondoriorik, ez amarentzat ezta haurarentzat ere.

Haurdunaldi anizkoitzetan, aldiz, progesteronak ez dakar inolako onurarik.

Bestetik, saiakuntzak egin dira umetoki-lepo laburtua duten emakume haurdunekin. Ikerketa horietan, emakume haurdunaren umetokiko lepoa neurtu da, baginako ekografia bidez, haurdunaldiko 20. astearen inguruan. Progesteronarekin tratatutako emakume taldeak

%45eko murrizketa izan zuen prematuritate-tasan, eta %43koa jaiotza-inguruko morbidimortalitate-tasan. Haurdunaldi anizkoitzen kasuan, progesteronak ez dakar inolako onurarik haurdun talde horretan ere.

Ebidentzia zientifiko horrekin, progesterona bidezko prebentzio tratamendua eskaini beharko zaie aurrerantzean alde aurretik seme-alaba goiztiarren bat izan duten emakume haurdunei, baita baginako ekografia bidez egindako neurketan umetoki-lepo laburtua dute-nei ere.

Bide luzea geratzen da oraindik prematuritatea erroto desagertzeko, baina aurrerapauso horiek pozgarriak eta itxaropentsuak dira, tresna erraz eta segurua eskaintzen baitiote ginekologoari.

Oraintsuko argitalpen mediku batek esan duenez, umetoki-lepo laburtua duten emakumeengan pesarioa ezartzeak murriztu egiten du prematuritatea, baina ikerketa gehiago behar dira datu horiek egiaztatzeko. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza[®]

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Usainez mozkor

MARRUBI USAINA duen menda, menda usaina duen geranioa, limoi usaina duen luisa-belarra... Hamaika usaintzeko gaude. Lurrinen soroak oparoak dira. Soroak, soloak edo dena delakoak. Denak latinezko *solum* ez al dira, bada? Lurra, horixe da soroa. Euskaldunon neolitoetik gelditu zaigun ikuskera: soroa da lurra, landu daitekeen lurra, geuk emankorrango egiten dugun lurra. Honelaxe zioen Gernikako Gaztetxea tartean Busturialdea Auzolanean taldeak antolatutako Soloan Berriketan deituriko topaketarako deialdiak: “Udaberria martxan! Ari dira soloak berpizten. Lurraren indarra jaso, elikatu, lagun artean konpartitu, Lurrari jabetasuna eman. Udaberriaz berritu. Usainekin mozkortu. Koloreekin liluratu. Eguzkitan busti, haize finaz garbitu, gogortu, sendotu, elkarren ondoan gozatu, berotu, izerditu, urtu.” Soroa ez den lurra ere usainak sortzen ditu. Baina Busturiako soloari ere usaina dario, udaberrian bezala urte osoan, ez dago mozkortu beharrik baina, ala bai? Ni baiezkoan...

Mozkin dira gaur egun usain gehienak. Badira naturalak, landu gabe bilduak, baina gehienak soroetan edo fabriketan sortutakoak dira. Lurrin asko eta asko artifizialak dira eta imitazio onak badira ere, ez dira. Marrubi usaineko jogurtak jatearen jatez marru-

biaren usaina ez dute ezagutuko gure hurrek etorkizunean.

Soroetan sortzen diren usainak ere badira. Tartean, sona ikaragarria hartua dutenak. Okzitaniako Tolosan galdetu behar! Hango bioletaren usaina hobetuko duenik ez omen da... Historia luzea du bioleta (*Viola* sp.) langintzak alde horretan eta etekin ederra ateratu diote. Usaina, perfumea da landareño horren mozkin ezagunena baina azukretan kristalizatutako loreak, ziropak, marmeladak, likoreak, eztiak... zer ez dute egiten bioletaz? Plater ugaritara ere eramaten dute. “Hiri arrosa” deitzen zaio, bere adreiluzko etxeak direla eta; nik “hiri morea” deituko nioke, otsailero egiten duten bioletaren jaialdira azaldu eta zuzen ote nabilen erabaki...

Patxulia aipatu gabe ez diot oporraldiari ekin nahi. Gero eta gehiagotan aditzen dut patxuli usaina, boladan dago. *Pogostemon cablin* landarearen hostoen esentzia da. Hippyen garaiko lurrina zen, zikin-estalki ona, ez dutzatzearena, drogena eta abar... Lagun baten amonak esaten zuen bezala “badator abuztu nazkagarria” eta egun, egunean bitan dutzatzea derrigorrezkoa dela badirudi ere, izerdi usainak ezkutatzeko: patxulia. Aldamenekoak zer ote dio, baina? Horrek bai mozkortu. Gustatu egin behar!



JAKOBA ERREKONDO



Zuri-zuri

Giro epel eta hezeak perretxikoak eta onddoak suspertzen ditu. Landareak jipoitzen dituzten gaitz gehienak hauek sortzen dituzte. Geurean udaberritik udazkena artekoa nahikoa epel denez heze diren egunetan adi gaitzei!


Hona zurina, edo oidioa. Platanoaren (*Platanus x hispanica*) hostoa lizun antzeko geruza zuriz estali eta kiribildu arteraino estutzen duen hori da onddoa, *Microspora alni*. Haritzak, ametzak... zuhaitz eta landare ugari erasotzen du zurinak. Hostoa ezkutatu, itzaldu, ahuldu, kizkurtu, ihartu eta erortzeraino eramaten du. Ez da gaitz larria, baina pasara ederra ematen dio landareari.

Landare askori erasotzen die zurinak. Zuria zuriaz zuritzen dugu, ordea. Zuria da zurinari aurrea hartzeko dugun adiskide onenetakoa: esnea. Esnea landarearentzat eguzkitarako krema bezala da. Azala zailtzen duenez zurinak zailagoa izango du sarrera.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Urdulizko istripuaren biktima guztiak



EL CORREO



METRO BILBAO

Ezkerrean, istripuaren irudia; eskuinean, MTU/RTU-1 tren, istripua izan zuten bi lokomotorrak bezalakoa, Bilboko Metroko arduradunek berriki deseginarazi dutena.

URDULIZ (BIZKAIA), 1970EKO ABUZTUAK 9, 19:30. Geltoki buruak Plentziara bidaiaririk gabe zihoan tren baten artea baimendu zuen. Ordurako beste tren bat abiatua zen Plentziatik Bilborantz, hondartzatik zetorren jendez gainezka. Bi trenek bide bakarreko eta ikuseremu urriko zatia igaro behar zuten. Orduko 45 kilometroko abiadura gehiegizkoa izan ez arren, makinistek ezin izan zuten arriskua ikusi. Geltoki burua egindako akatsaz jabetu eta korronte elektrikoa moztzen saiatu, baina ez zuen lortu. Garaiko komunikazio teknologia urriak ere ez zion makinistek ohartarazteko aukerarik eman. Talka izugarria izan zen, Euskal Herrian sekula gertatutako tren istripurik larriena: 33 hildako eta 160 zauritu baino gehiago, horietatik 29 larri.

Ingurukoak berehala joan ziren laguntzera, besteak beste, DYako sortzaile eta presidente Juan Antonio Uspartitza: “Iritsi nintzenen nahasmena izugarria zen. Laguntzera hurbildutakoek oso borondate ona zuten, baina borondate ona besterik ez; han ez zen antolakuntzarik, gidaritzarik...”. Beste lekuko batzuen arabera, inguruko landaredia trinkoak asko oztopatu zituen erreskate lanak; “gorpuak aurkitzea eta garraiatzea lan nekeza izan zen”.

Ezbeharraren arrazoi ofiziala “esplikaziorik gabeko giza akatsa” izan zen. Okupatuta zegoen bidea erabiltzeko baimena eman zuen langileak egin zuen akats hori, Urdulizko geltoki buruak, alegia. Hala, Bilboko tren enpresako (Compañía de Ferrocarriles Suburbanos de Bilbao) arduradunek arazo teknikoak baztertu eta erantzukizuna saihestu zuten. Istripua gertatu eta bi egunera, Rafael Martínez epaileak Urdulizko geltoki burua Basauriko espetxean sartzeko agindua eman zuen.

Baina, gerora jakin zenez, “esplikaziorik gabeko akatsak” bazuen esplikazioa. Eta ez nolanahikoa. Langileak hamasei orduko lanaldiak egin zituen aurreko lau egunetan, goizeko 5:00etan hasi eta gaueko 23:00etara arte. Gainera, egun horietan geltoki laguntzailea ez zen lanera joan. Hortaz, geltoki buruak, trenen zirkulazioa kontrolatzeaz gain, leihatilan txartelak saldu behar zituen, langak jaso, orratzak aldatu...

Hainbat hilabete espetxean eman ondoren, istripuaren “erruduna” aske utzi zuten. Eta handik gutxira hil zen, teorian osasun arazoak medio. Haren ingurukoen esanetan: “Atsekabeak jota hil zen. Istripuak bera ere hil zuen”.



Arrastoak

PEZ gozoki biluziek 85 urte bete dituzte

PEZ GOZOKI EZAGUNAK Vienan jaio ziren 1927an. Eduard Haas III.ak mentazko pastilla egin zuen, alemanez *Pfefferminz*, eta hitz hori laburtuz PEZ izen komertziala asmatu zuen. Berehala etorriko ziren gainerako dastakoak, baina izenari eutsi zion Haasek. Gozoki txikiak gordetzeko eta ahora eramateko plastikozko kutxatila geroago iritsi ziren, 1949an. Eta edukitzailak berehala hartu zion aurrea edukiari. Iru-diz hornitutako kutxatila bildumagileen grina piztu zuten berehala, eta Mickey Mouseren ale eskusibo baten truke 7.000 dolar ordaindu zituzten orain dela gutxi.



THE FAT PIXEL



Goian, PEZ gozokiak. Behean, gozokiak gordetzeko plastikozko kutxatila, gozokiak berak baino ospetsuagoak eta bildumagileen helburu bihurtu direnak.

Frackinga

AEBetako enpresen nahietara egokitutako plana

2006an hasi ziren SHESA, EAEko hidrokarburoen enpresa publikoa, eta Heyco eta Cambria estatubatuarrak Araban gas naturala ustiatzeko plana diseinatzen. 2005ean George Bushen administrazioak gas ez-konbentzional ustiapenak zenbait ingurumen araudi betetzeaz salbuetsi zituenean, frackinga negozio handi bihurtu zen AEBetan. Hemen antzeko baldintzak lortzen ahalegindu dira Heyco eta Cambria, hiru enpresen arteko bileren aktetan ikus daitekeenez.

UNAI BREA

IAZKO URRIAN, Patxi Lopez EAEko lehendakariak berri ona eman zigun, Euskal Herrian bakerako oinarriak ezartzen ari ziren bitartean berak AEBetara egindako bidaiatik ekarria: erkidegoaren beharrak 60 urtez asetzeko adina

gas natural du gordeta Arabako lur azpiak, norbaitek ateratzeko zain. Eta hausketa hidraulikoaren, alegia, frackingaren bitartez, luze gabe izango zen gas hori erabilgarri.

“Jendea orduan hasi zen kezkatzen, ea zer ote zen fracking delako

hori”, dio Andres Illana Fracking Ez Araba plataformako bozeramailetako batek. Kezka haren emaitza izan zen plataforma, abenduan sortua. Baina 2011ko urrian, Euskal Herrian gutxik zuten frackingaren berri. Horien artean, Ibarretxeren

Jaurlaritzaren asmoak betetzekotan, Subillana Gasteizko zelai honetan egingo dituzte eskisto gasa ustiatzea bideragarria ote den aztertzeko lehenbiziko bi putzuak. Eskuman ageri dena Mikel Otero da, Fracking Ez Araba plataformako kidea.



garaiko administrazioak sortutako SHESA (Euskadiko Hidrokarburo Elkartea) enpresa publikoko kideak.

Ingurumen babesa oztopo

2006tik SHESAk Heyco eta Cambria enpresa estatubatuarrekin —azken bi horiek ditu euskal konpainiak bazkide, gasa ustiatzeko proiektuan— egindako bileren aktak eskuratu ditu ARGIAk. Lehenbiziko batzarretan presa zutela agertu zuten Heycoko ordezkariak; 2007. urtea amaitu baino lehen hasi nahi zuten putzuak zulatzen. SHESAkoek erantzun zieten nekez lortuko zela epe horretan lanean hastea, denbora behar baitzen ingurumen baimenak lortzeko. Atzerapena atzerapenaren ondotik, azkenean 2014rako aurreikusi da lehen putzu biak zulatzea, Subillana Gasteiz herritik gertu.

Hurrengo bileren aktetatik ondorioztatu daiteke Heycok kezka zuela ingurumenaren babes neurriek bere asmoei eragin diezaieketen atzerapenez. 2007ko urtarrilean, Cambria konpainiako kideek parte hartu zuten lehenengo batzarrean, Heycoko presidente George Yatesek galdetu zuen ea proiektua moteldu

zezakeen ingurumen aferarik bazen. Orduan zein orain SHESAko ordezkari nagusia denak, Juan Cruz Vicuña, erantzun zion esanguratsu bakarra zela Gasteizko Mendiek etorkizunean izango zuten babes araudia —dagoeneko oso aurreratuta daude inguru hori parke natural izendatzeko tramiteak—, eta askoz neurri txikiagoan, Subillanako akuiferoa.

Heyco, Cambria eta SHESAren arteko bileren aktetatik ondorioztatu daiteke lehenbizikoak kezka zuela ingurumenaren babes neurriek eragin zezaketen atzerapenez

Ez zuen Vicuña bere aurreikuspenetan asmatu, akuiferoa baita SHESA eta bere bazkideen proiektuaren aurkariak gehien darabilten argudioetako bat. “EAEko ur erre-serba garrantzitsuena da”, azaldu

digu Andres Illanak, “eta balio estrategiko handia du, erakundeek ere onartua. Gaur egun Bilbo eta Gasteiz urez hornitzen dituzten Zadorrako urtegien alternatiba bakarra da”.

Hausketa hidraulikoak arrisku bizian jarriko luke horko ura, Mikel Otero Fracking Ez Arabako kidea-ren esanetan: “Gehigarri kutsagarriak dauzkaten hainbat milioi litro ur pasaraziko dituzte hortik, eta akuiferora iristeko beldurra dugu. Gainera, akuiferoa ukitu ala ez, sartutako ur gehiena lurpean geratuko da, eta ez dakigu hortik nora zabaldu daitekeen”.

Antzeko iritzia agertu digu Javi Carro EAJko legebiltzarkideak. Azken hilabeteetan Carro izan da frackingaren aurka Gasteizko Legebiltzarrean gehien nabarmendu den parlamentarietako bat. “Gure baliabideak era egokian ustiatu behar ditugu, eta kasu honetan akuiferoa da lehentasuna daukana, gas naturalaren aurretik”. Gasa ustiatzearen alde dago Carro, baina ez Eusko Jaurlaritza aurrera darabilen proiektuarekin. “Fracking teknika berrogeialdian sartu behar da, ezer eta inor ez kutsatzeko. Izan

AXIER LOPEZ





Frackingak lur azpian milioika litro ur sartzea eskatzen du. Argazkian, ura gordetzeko tegiak, AEBetako ustiategi batean.



Hau sketa hidraulikoko putzu bat, Pennsylvanian.

FRACKING EZ ARABA



Fracking Ez Araba plataformaren ekintza bat.

gaitezen zuhurrak eta babestu ditzagun akuiferoak. Gasak ez du inora alde egingo, izango da denbora teknika seguruagoak garatzeko, baina bitartean itxaron egin behar da. Ez daukagu orain ustiatzeko premiarik, EAE ondo hornituta baitago gas naturalez”.

Eta hurrengo legeingintzaldian zer?

Gogoan hartu behar da 2006an, SHESA eta Heyco lehen bilerak egiten hasi zenean, jeltzaleak zeudela boterean EAEn. “Logikoa da”, aitortu du Carrok, “jendeak pentsatzea datozen hauteskudeen ostean EAJk frackingarekin aurrera jarraituko duela, baldin eta berriz itzultzen bada Gobernura. Baina nik espero dut orain esaten ari garena- ren arabera jokatu dugula, alegia, energiaren aurretik akuiferoei lehentasuna emanez, eta frackinga behar beste denbora –hiru urte, bost, edo hogeit berrogeialdian edukiz, alternatiba seguruak garatu arte”. Denborak esango du.

Oraingoz, Eusko Jaurlaritzak energiari buruz dituen asmoak *Euskadiko Energia Estrategia 2020* txostenean daude jasota. Haren 166. orrialdean irakur daiteke honakoa: “Garrantzitsua da gas naturaleko erreserbak esploratzeko eta, hala badagokio, ustiatzeko eskaerak eta baimenak izapidetzeko egungo araudia erabat sinplifikatuko duten ekimenak gauzatzeta.(...) Hori lehentasunezko jardun-esparru bat izango da energiako iritzi-zentroarentzat (edo *Think Tank*), zeinaren sorkuntza eta garapena aurreko ekimenetan proposatu den. Zehazki, gas naturalaren esparruan iritzi-egoerak eta araudi-proposamenak sortzea izango da zentro horren erreferentziatzeko ildoetako bat”.

Dani Maeztu Aralarreko legebiltzarkidearen ustez, ez dago alde handirik paragrafo horrek dioenaren eta Heyco eta Cambria enpresen diskurtsoen artean. Maeztu, Javi Carrorekin eta Gasteizko Legebiltzarreko beste kide batzuekin batera, Bartzelonan izan zen martxoan, Gas Ez-konbentzionalaren Foroan, eta John Underwood, Heyco enpresako esplorazio zuzendariaren hitzak entzuteko

aukera eduki zuen. “Arabakoaz hitz egiten zuen dagoeneko eginda balego bezala. Zer aukera zegoen zer etekin aterako zen...”. Maeztaren ustez, Heycokoek hain garbi hitz egiteak frogatu egiten du Jaurilaritza gezurretan ari dela, esaten duenean oraingo esplorazioa besterik ez dela egingo eta horren arabera erabakiko dela ustiapen faseari ekin ala ez. “Garrantzitsuena da kontratuak sinatuta daudela. Beraientzat ingurumena tramite hutsa da. Enpresa horiek ez dute hemendik alde egingo ingurumen inpaktu azterketek esaten badute ezin dela frackinga erabili. Ez, egingo dutena da hemengoei agindu ingurumen inpaktu azterketak positiboak izan daitezela”.

Araban gasa ustiatzeko proiektuari buruzko ingurumen inpaktu azterketarik ez da egin oraindik, ordea. Legebiltzarrak, otsailean onartutako lege besteko proposamen baten bitartez –PSEk baino ez zuen kontra bozkatu–, Jaurilaritzari hala eskatu zion, baina lege besteko proposamena izanda, Gobernuak ez du zertan bete, Maeztuk gogorarazi digunez. “Beraiek ematen duten aitzakia da momentuz esplorazioa egingo dutela, ez ustiaketa, eta beraz ez dela beharrezkoa inpaktu azterketa egitea”.

PSE bakarrik geratu da posizio horren defentsan. Fracking Ez Arabako Andres Illanak diosku ez daukala ez hanka ez bururik inpaktu azterketa ez egiteak, “legeak hala eskatzen baitu plan estrategikoen kasuan; lehendakariak publikoki adierazi du 60 urterako gasa ateratzeari ekingo zaiola, zer da hori estrategia ez bada?”. Uztailaren 5ean, egunkarrietan agertutako albiste batek zioen Europar Batzordeak ere ingurumen inpaktu azterketa egiteko eskatu ziola Jaurilaritzari. Lehenago, urtarrilean, eskari bera egin zuen Gasteizko Udalak –bere lurraldean daude Subillanako putzuak–; PPK ez du frackingaren aurkako jarrera argirik erakutsi gainerako erakundeetan, baina askok uste

dute Gasteiz aurtien Green Capital izateak udala behartu duela tentuz jokatzera. Izan ere, momentuz ez dute eman putzuak egiteko nahitaezkoa den baimena, SHESAk helarazi dion informazioa nahikoa ez dela argudiatuta.

Ingurumenari egiten zaion kaltearen aldetik ez dago inongo desberdintasunik esplorazioaren eta ustiaketaren artean, azpiegitura berbera da Illanak azpimarratzen duenez. Are gehiago, esplorazioak izango du ustiaketatik zerbait. SHESA, Heyco eta Cambriaren arteko 2007ko bileren aktetan ikus daitekeenez, lehenbizikoak iradoki zuen azterketa egin bitartean eskuratutako gasa merkaturatzeko, zulatze lanen kostuak berdintze aldera. Aurtien bertan, Energiaren Euskal Erakundeko ordezkariak baieztatu dute publikoki hala egingo dela.

2.000 putzutik gora

Fracking Ez Araba plataformak publiko egin du Jaurilaritzaren iragarpenetan oinarrituta egingako kalkulu bat: Patxi Lopezek esan bezala 60 urterako gasa badago Araban, hori ustiatzeko 2.000 putzu baino gehiago egin beharko dira herrialdean. Eta horien artean, ezin konta ahala kamioi etengabeko joan-etorrian, horretarako beren-beregi sortutako errepideetan.

Frackingak eragindako arazo horiez guztiez gain, plataformako kideek beste arrazoi on bat aipatzen dute haren aurka agertzeko: erregai fosilen aldeko apustua alferrik luzatzea besterik ez da. Alegia, hidrokarburoen gainbeherari aurre egiteko azken saiakera, belaki lehor bati azken ur tantak kosta ahala kosta kendu nahi izatearen parekoa. Garestiegi atera daitekeen ahalegina. Poloniak eman digu adibidea. Hasierako aurreikuspenek ziotena baino %80 gutxiago ateratzea espero dute orain, behin lurra zulatzen hasi direnean. ■



...ametsetan
bezala

ATXASPI HOTELA

Bittiria, 24
Lesaka (Nafarroa)
T.: 948 637 536
hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



Sare sozialak

Twitter euskaraz, hurrengoa zer?

Duela urtebete pasatxo #twitter euskaraz kanpaina abiatu zenetik atxikipen ugari jaso du eskaerak. Otsailean, AEBetako enpresa erraldoiak euskaratzeko baimena eman zuen, eta abuztuan, ondo bidean, itzulpena prest egongo da. Batzuk hurrengo kanpaina zein izan daitekeen pentsatzen hasiak dira.

ONINTZA IRURETA AZKUNE



Munduan 34 hizkuntzak lortu dute Twitter itzultzeko baimena, tartean euskarak.

Twitter sare sozialaren euskarria itzultzeak esan nahi du, gutxi-asko, 3.000 hitz, esaldi edo termino euskaratu behar direla, beti ere ingelesetik. Hiru hilabete dira euskal erabiltzaileak itzulpen lanetan hasi zirela eta uztailaren 5erako dena eginda egongo zela aurreikusi bazen ere, opor betean bukatzeko asmotan dira. Aldizkaria itxi genuenean %89 zegoen euskaratuta. Bide batez esan, edozein hiztun komunitatek musutruk itzultzen duela tresna, alegia, enpresak hitzunen esku uzten duela itzulpen lana. Twitter enpresak ingelesez sortu zuen

Interneteko sarea, eta ondoren, hainbat hizkuntza hautatzen joan da bere tresna itzultzeko. Zenbait hiztun komunitatek eskaerak egin dituzte eta Internet bidezko kanpainen babestu dituzte. Baimena lortutakoan sareko erabiltzaileak lanean hasten dira.

Enpresa multzoka aritu da tresna itzultzeko baimenak ematen. Euskara baino lehen, Twitter 28 hizkuntzatan zegoen. Katalana, ukrainiera, greziera, txekiera, afrikaansa eta euskara izan dira trenera igo diren azken sei hizkuntzak. Beraz, euskara lehen 34tan sartu da.

"We would like to translate Twitter to Basque"

Lander Arbelaitz ARGIAko kazetariak eta *Twitter euskaraz* kanpainaren bultzatzaileetakoak, 2010ean ikusi zuen nola katalanak hasi ziren enpresari itzultzeko baimena eskatzeko kanpainarekin. Urtebetera, plataforma lehen zazpi hizkuntzetera zabaldu zutenean (gaztelaniara eta frantsesera, tartean), katalanei esan zieten entzun zietela eta hurrengoak haiek izango zirela. Ideia gustatu, eta euskarak ere hor egon behar zuela pentsatuta, gauza bera egitea erabaki zuen Arbelai-

tzek. Besteren artean Twitter enpresako kudeatzaileak, mezu hau jasoko zuen: *We would like to translate Twitter to Basque*, alegia, “Twitter euskarara itzuli nahi dugu”. Twitter tresna bera erabiliz egindako kanpainak kolpeko erantzuna izan zuen. Bi egunetan kudeatzaileak 1.200 txio edo mezu jaso zituen; gero abiada makaldu zen. Pertsonaia ezagunei ere, mezuaz zabaltzeko laguntza eskatu zitzaizkien, hala nola Patxi López Eusko Jaurlaritzako lehendakariari, Xabi Alonso futbolariari eta Fermín Muguruza musikariari. Arazo teknikoaren erruz, sei hilabetez atxikipenak egiteko aukerarik ez zen izan. Ondoren, Joseba Kamio erabiltzaileak beste bultzada bat eman zion eskaerari, *Guk maite zaitugu, maita gaitzazu zuek ere* lelopean mezuak bidaltzera animatuz twitterlariak.

Tuit ala txio?

Enpresak itzultzeko baimena emanda, Itzulpen Zentroa eskura jartzen die itzultzaileei. Orri bat irekitzen du sarean eta pantailaren ezker aldean sare sozialak daukan eduki guztia eskaintzen du ingelesez; esaldika, terminoka... Eskuinean euskarazko baliokidea jartzen joan dira erabiltzaileak. Boluntarioa sartu eta ordurako itzulita baldin badago –itzulpen aukera bat baino gehiago egon daitezke–, gustukoena bozka dezake edo bestela norberaren proposamena egin. Itzulpenak onartua izateko bozka kopuru gutxienekoa behar du.

Osasungarria denez, eztabaidak izan dira hainbat termino nola itzuli erabakitzerakoan. Horren lekuko da sustatu.com-en *Abuztura arte itxaron beharko Twitter euskaraz ikusteko* artikuluko iruzkinetan sortuta-



Itzultzen ibili direnek jada euskaraz daukate Twitter.

ko eztabaida: tuit ala txio, zein erabili? Gaiari lotuta, Gorka Julio sare sozialen erabiltzaile beterranoak, *Berrian* itzulpengintza-lokalizazioaz idatzi zuen artikulua. Hark Twitter itzultzeaz baino, euskarara lokalizatzear hitz egin zuen. Hala zioen: “Aukeran txio nahiago. Arrazoi batzuk: T-z hasten da eta ongi uler-

**“Begira zer lortu dugun
2.000 inguru
atxikipenekin. Euskaraz ez
daukaguna enpresa
handiei eskatzen
asmatzen baldin badugu
emaitzak lor daitezke”**

**LANDER ARBELAITZ,
KANPAINAREN BULTZATZAILEA**

tzen da, berezkoaren esanahi bera du eta gure hiztegiaren dago, *TT Trending Topic* gehien aipatutako gaiak TxorroTxio deitzea dibertigarria iruditzen zait, haurretako kanta bat ekartzen dit gogora... Beste hitz batzuk ere asmatu izan ditugu, arro-

ba (abildua), feed (jario) hashtag (traola)... Zergatik ez oraingoan? Kasu ezberdina? Hauek ere, erabiltzen hasi ginenean inork erabiltzen ez zituela gogoratu beharko genuke”. Azkenean, tweeten euskarazko ordaina txio izango da. Ondoko pasarteak argigarria da lokalizazioaren alde egindako ahalegina ikusteko. Jatorrizko testuan ez zen horrelako adibiderik azaltzen, noski: “Twitterren egunero hamaika gauza gertatzen da, azken orduan pin-txo-poteoan kroketa ateratu dituztela, Orion berriro balea agertu dela, Gaintxurizketan kontrola...”.

Twitter euskaraz izatearen balioa

Munduko webgunerik garrantzitsuenetakoak pixkanaka euskaraz izatea lortu da: Google, Youtube, Facebook eta Wordpress. Twitter talde horretan sartuko da aurki. Lander Arbelaitzen ustez, Twitterrekin gertatu denak erakutsi du Internet bidezko kanpainetan zarata ateratzea lortzen dela: “Begira zer lortu dugun 2.000 inguru atxikipenekin. Oraindik euskaratuak ez dauden euskarriak enpresa handiei eskatzen asmatzen baldin badugu emaitzak lor daitezke. Sareak kanpainak antolatzeko bideak ematen ditu. Pena eman eta hizkuntza salbatzeko laguntza behar dugula esan beharrean, beren erabiltzaileak garelako eta errespetuz tratatu nahi bagaituzte, euskara kontuan hartu behar dutela erakutsi behar diegu. Helburu onek aukeratu eta Interneten kanpainak egiten hasi beharko genuke. Zergatik ez Androidak eta Apple etxearen iPhoneak eta Mac ordenagailuak hurrengo? Hori ere iritsiko da”.



Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erlako euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legeari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Euskararen Aholku Batzordeak ESEP onartu du

EUSKO JAURLARITZAREN barne dagoen Euskararen Aholku Batzordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu du. ESEPk Euskara 21 du abiapuntu eta aurreko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ordezkatzera dator. ESEPk Jaurlaritzaren datozen 12 urtetako hizkuntza politikaren eta euskararen normalizazioaren norabidea erakutsiko du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ESEP kritikatu du eta bi alde aipatu

ditu: batetik, dokumentua lantzerakoan aldundia “gonbidatu huts” izan dela esan du, eta bestetik, ESEPk euskararen normalizazioan ez dakarrela aurrerapenik, herritarrek euskara berreskuratzeko lortutako adostasunean atzera egin dela.

185.600 elebidun gehiago

EUSKO JAURLARITZAK V. Inkesta Soziolinguistikokoaren datu guztiak argitara eman berri ditu. EAEkoak martxoan azaldu zituen, eta orain, Nafarroakoak eta Ipar Euskal Herrikoak eskaini ditu.

Inkestako emaitzetan bada begia non jarri. Hona zipriztin batzuek gogoetarako:

– Duela 20 urte baino 185.600 elebidun gehiago dago Euskal Herrian, %27 hain zuzen.

– Elebidun kopuruak gora egin du, baina euskararen erabilera 1991koa baino txikiagoa da. Alegia, orokorrean euskara gehiago erabiltzen da, baina gaur egungo elebidunek 1991n elebidun zirenek baino gutxiago erabiltzen dute.

– Erabilerak gehien eremu formalean egin du gora. Etxean behera egin du, salbu eta guraso eta seme-alaben artean.

– 35 urtetik beherakoen artean euskara erabiltzen dutenak duela 20 urte baino gehiago dira EAEn.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Kapitalismoak hiltzen du

Sistema kapitalistak hil egiten du. Hain salaketa larria ez du lerrook idazten dituenak asmatu; egunerokoak berak erakusten du hemen Euskal Herria eta mundu osoan. Finantza krisia iritsi arte ere, sistema kapitalistaren hiltzaile senaren froga irmoak genituen. Adibide batzuk: lan segurtasunean ez inbertitzeagatik milaka langile hiltzen dira istripuetan, lan baldintzak jasanezinak eta basatiak dira, eta ordutegiak gehiegizkoak. Milaka langile hiltzen dira produktu kantzerigenoak erabiltzearen ondorioz sortutako gaixotasun profesionalengatik. Milaka langile ari dira bizia galtzen (eta hala segiko dute) amiantoagatik.

Orain, krisiarekin, hilketa kapitalistaren modu berria azaldu da: immolazioa eta suizidioa. Ofizialki onartua dago krisiak suizidioaren tasa %40 haztea eragin duela Europan, eta Grezia da suizidio gehien zenbatzen den herrialdea. Hain zuzen, duela aste batzuk 60 urteko gizonezkoa eta 90 urteko bere ama – alzhemerrak jota – suizidatu egin ziren Atenasen, eskutik helduta balkoitik salto egin eta gero. Egoera prekarioan zeuden, eta ez zuten amarentzako egoitza aurkitzeko modurik. Apirilean, 77 urteko Dimitris Christoulas jubilatu greziarrak, tiroz jo zuen bere kopeta Parlamentuaren aurrean. “Ez dut ikusten –utzi zuen idatzita– beste soluziorik, ezen nire bizitzari amaiera duin hau ematea baino, ez baitut nire burua ikusi nahi zabor ontzietan bilatzen. Uste dut etorkizunik gabeko gazteria hori armetan altxatuko dela egunen batean eta herri honen traidoreak Sintagma plazan zintzilikatuko dituztela”. Armetan altxatu eta traidoreak zintzilikatu, ez da erraza izango. Baina beste gauza bat aurreikusi daiteke: gazteen %50 langabezia dago eta horien suizidioak eta immolazioak ugaritu egingo dira. Kapitalismoak hiltzen jarraituko du. Aurre egin behar zaio!

Juan Mari Arregi



Jon Landaburu, Kolonbiako hizkuntzak ikertzen dituen hizkuntzalariak Berria esanak: “Leku batzuetako ia herritar guztiek lauzpabost hizkuntza indigena hitz egiten dituzte. (...) Eta askok gaztelaniaz eta portugesez ere hitz egiten dute, eta ingelesa ikasten dute eskolan. Hori da lezioa. Haien artean hor gatazkarik egongo balitz, denek hizkuntza bera erabiliko lukete. Gizakiak, ingurua ulertzeko, hizkuntza bat baino gehiago eduki behar du. Estatu elebazarren fantasia europarrak jan digu burua. Hizkuntza aniztasuna oso aberasgarria da”.

Mikel Irizar Topaguneko lehendakariak El Correo esanak: “Nire lagun batek *Prestige* hondoratzen ari deneko irudia erakutsi izan du... Nola nahi dugu jendea ontzi horretara igotzea? Askori higuigarria iruditzen zaie euskara eta marketina lotzea, baina nik uste dut euskal hiztunok eta euskara normalizatzeko eragin nahi dugunok, neurri batean saltzaile izan behar dugula. Lagunak hurbilarazteko erakargarriagoa da pentsatzea belaontzian goazela eta nabigatzea atsegina dela, eta ez esatea hondoa jotzen ari den petrolio-ontzia dela”.

Naziotasuna eta eraginkortasuna irailaren 26an

ESPAINIA erabateko erreskatearen atarian egon liteke. Grezian, Portugalen eta Irlandan egoera hori eman aurretik zegoen giroa eta Espainiarena ez dira oso desberdinak. Ez dakigu zer gertatuko den, baina Espainiako Gobernuako ministroei entzunez lasai egoteko esanez, egoera kontrolpean dagoela eta ez dela erreskate orokorrik izango, bada pentsa liteke erreskatea gainera dela dagoeneko.

Herritarrak datozenera presta daitezten, erreskate zuzenaren zurrumurrua gero eta indartsuagoa da.

Esanguratsua da norabide horretan Espainiako gobernu buru ohi Felipe Gonzálezek *El País*-en adierazi berri duena: "Erreskatearen atarian gaude. Eta Mariano Rajoyri estatu mailako akordioa eskatu dio porrotetik atera ahal izateko. Krisi osoaren sustraiak finantz arauen desegitean daudela uste du Gonzálezek, baina 1998ko Jose María Aznarren agintaldiaren ondorengo hamarkada jarri du egungo porrotaren oinarrian; Jose Luis Rodríguez Zapateroren bi gobernuei egoera ez zuzendu izana ere leporatu die.

EUSKAL HERRIAN euskal gehien-go sindikala buru, greba orokorra deitu da datorren irailaren 26rako. Erresistentzia, protesta eta aldarrikapenaren unea da PPren neurri hauek onartzen ez dituztenentzat. Argi dago beste greba orokor batek ez duela egoera konponduko, baina bestelako konponbidearen bidean beste urrats bat gehiago izango da.

Sindikatu guztiek deituta,



2011ko urtarrilekoa greba orokorra izan zen Euskal Herrian, oso aspaldian ez bezalakoa gainera. Orain ikusi beharko da zer egiten duten UGT eta CC00k. Egun horrekin bat egiten badute, aurrekoaren gisakoa izan liteke, bestela gehiago izango da 2009 eta 2010ean sindikatu abertzaleek bultzatu zituzten haien antzekoa.

Hainbat ertz izan dezakete gehiengo sindikalaren aldebakarreko dei hauek. Naziotasuna eta eraginkortasuna dira esanguratsuenak. Euskal gizartean dinamika sindikatu abertzaleek daramaten heinean, nazio esparrua sendotu egiten da, eta indar abertzaleentzat hori beti bada garrantzitsua, areago gaur egun Espainiaren egoera txarrak independentismoa indar-

**Ez dira hain aspaldikoak,
baina egunetik
begiratuta, lekutan
geratu dira Espainia
seduzitzearen kontu
haiek**

tzen duenean. Ez dira hain aspaldikoak, baina egunetik begiratuta, lekutan geratu dira Espainia seduzitzearen kontu haiek.

Baina aldebakartasunak badu bere ifrentzua: grebaren eraginkortasuna nabarmen jaisten da era bateratuan ez deituz gero, Euskal Herriko leku askotan desagertzearaino ia.

Iraganera begira, ELAk eta LABek makinatxo bat arrazoi izan dezakete UGTk eta

CC00k urte luzetan izandako bazterkeria jokamoldeekin. Deialdi bateratuak ere egin behar badira, alabaina, komeniko litzateke sindikatu nagusienek elkarrengana jo eta hitz egin dezaten, desberdintasunak diren gainerako esparru guztietan egiten den moduan. Akordioetara iristea litzateke helburua, lortzea beste kontu bat da.

Baina UGTk eta CC00k ere argi izan beharko dute euskal sindikal-gintza eta protestarako prest dagoen euskal esparru soziala ez direla Madrilen egosten denari begira geratuko eta nagusiki bertako dinamikari eutsiko diotela.

Ez da erraza UGTren eta CC00ren posizioa. Batetik, ez dute indarrik Euskal Herrian greba orokor bat haiek bakarrik bultzatzeko eta, alde horretatik, ikusi beharko da zer egiten duten irailaren 26ari begira. Ataka estuan daude, bat egiten badute, berriz agerian geratuko dira, iazko urtarrilaren 27an legez. Egiten ez badute, beste sindikatuei uzten zaie herritarren egoneza eta haserre biltzeko aukera guztia. Zer egin?



Zor eztanda gainditu deshazkunde selektiboarekin

Herrialde industrializatuek zor publikoa handitzeko daramaten dinamika geldiarazteko, deshazkundearen aldeko lider batzuek proposatu dute herri-lan erraldoiak gelditzea, gastu militarrek murriztea eta bizi politikoaren kostea gutxitzea. Alegia, deshazkunde selektibo bat abiaraztea, globalizazioa utzi eta ekonomia berriz lekuan kokatuz.

DESHAZKUNDEA EZ DA ENGOITIK urrutiko exotikokeria. *Décroissance*, *Decrescita*, *Decrecimiento*, *Degrowth*... munduak bizi duen krisi erraldoiari buruzko gogoetetan etenik gabe azaltzen den proposamena da. Mundutarrek bizi hobe bat izan dezaten ekonomiak hazi ez baina hertu egin behar duela.

Pentsamendu ildo horretako jende ezagunek berrikitan manifestua plazaratu dute ekonomia aurreratuak astintzen dituen zor publikoa dela eta: *Dette publique, crise économique et décroissance beruse* (Zor publikoa, krisi ekonomikoa eta deshazkunde zoriontsua). Sinatzaileen artean dira Carlin Petrini *Slow Food* mugimenduaren liderra, Serge Latouche deshazkundearen teoriko nagusietakoa, Rino Marceca Italian abiadura handiko trenari aurre egiten dion Val di Susa haraneko lehendakaria eta Fabio Salviato Banca Eticaren fundatzailea.

“Zor publikoaren larritasuna —diote aurrekarietan— ez da behar adina baloratu. Bera da historiaren gaurko fasean hazkundearen zutoina. Salgaien produkzioa handitzen joateko nahitaezkoa da. Herrialde industrializatueta gobernu guztiek sustatu dute, izan eskuineko edo ezkerreko”. Zergatik?

Estatuek eta lekuko administrazioek diru gehiago gastatu dute modu sistematikoan gero ordaindu

ahalko zutena baino, familiak ere bultzatuz gauza bera egitera, behar baino ugariago produzitutako gauzak ezin zirelako erosi ez bazen zorpetuta: gauzak saldu gabe geratuz gero sistema osoa joango litzateke pikutara.

XXI.eko krisia azaldu zenetik, are zor handiagoak egin dituzte, hazkunde berrabiarazi nahian, kontsumoaren bidez. Ez dute emaitza onik lortu, deshazkunderazaleon ustez aurrerapen teknologikoak produkzio ahalmena gehiegi handitu duelako. Neurri berriek ez dute langabezia gutxitu, ugaritu baino. Baina makinek lanean segi behar dute, haiekin eginga saldu egin behar da eta horretarako zorpean erostea beste biderik ez da.

Zor publikoa bereziki handitu dute herri-lan handiek. Sarritan agintari politikoek abiarazi dituzte ez lekuko beharrei erantzuteko, ekonomia mugiarazteko baino. Ingurumena birrinduz askotan, enpresa handientzako bazka dira, horretarako politikarien konplizitatea behar dutelarik.

Obra faraoniko horietako asko maiz aipatzen dira, autobideak, tren lasterrak, eta beste, baina badira kalean gutxiago kritikatuak izan arren manifestu honetan espresuki aipatuak: kirol (futbol, tenis, igeriketa, atletismo...) txapelketa nagu-

Osservatorio Represione gunetik hartutako argazkian, 2011n Italiako Turinen abiadura handiko trenaren kontra eta Val di Susa haraneko herritarren elkartasunez egindako manifestazioa. *Decrescita Felice* (Deshazkunde Zoriontsua) elkarteak plazaratu duen manifestuan aitzindaritzaz aitortzen zaie azpiegitura erraldoien kontrako mugimenduei: “Politikari berriak behar ditugu, oraingo eskuineko eta ezkerreko alderdietan hezi direnekiko *antropologikoki ezberdinak*, hazkunderaren dogman formateatu gabeak, joan den mendeko dinamikatik kulturalki ezberdinak (...). Ari dira sortzen. Hazitegiak dira obra publiko handien eraikuntzari eta zerbitzu sozialen pribatizazioari aurre egiten dioten mugimenduak; horiek biak baitira enpresa handien eta kolore guztietako alderdi politikoaren arteko aliantzaren ardatzak”.

siak, Expoak, urteurrenak, nazioarteko biltzarrak.

Tartean, Joko Olinpikoak. “Greziaren zor publikoa gezia bezala hasi zen igotzen Atenasen 2004an egindako Joko Olinpikoekin. Turin da Italiako hiri zorpetuetako bat 2006an neguko Olinpiada ospatu zelako bertan”.

Gastu militarrek ere asko gizendu dute zor erraldoia. AEBen kasuan, 1989an Berlingo harresia eroritakoan logika inperialeraz hasi zen jokatzeko. Hasieran etekin handiak eman zizkien arren, “ikusten hasi da egoera bat Erromako inperioaren akaberaren antza hartzen ari dena, han ere probintziak kontrolatzeko beharrezko gastu militarrek handiagoak ziren handik ateratzen zizkieten altxorrek baino”.

Herri-lan handiak gelditu

Baina krisiaren deskribapenetik —gaur krisiaren jatorria esplikatzea moda bihurtu da— aurreago doaz manifestuan. Proposamenak egin dituzte, ziurrenik mundu osoko mugimendu aurrerazaleei irizpide interesgarriak eskainiko dizkietenak politika ekonomikoak epaitzerakoan edo eskaintzerakoan.

Lehenengo hiru erabakiak izan behar dute: herri-lan erraldoiak gelditzea, gastu militarrek murriztea eta bizi politikoaren kostea gutxi-



tzea. Azkenean, gaitz bera denaren hiru osagaitan esku gogor hartzea.

Europako eta munduko agintariek bestelako bideari ekin diote, alegia gastu publikoak murriztea; honek berekin dakar estatuen diru sarrerak murriztea, produkzio sektore osoak blokatzea eta langabezia are gehiago handitzea. Grezian ikusi da, Espainian beste hainbeste. *De facto*, deshazkunde basatia. Manifestuan, aldiz, oso bestelakoa proposatzen dute: deshazkunde selektiboa.

“Zor publikoa gutxitu edo bederen ez handitzearekin batera lanpostuak ugaritzekotan, produkzio jarduerak indartu behar ditugu inbertsioen kosteak gero ustiapen kosteetan lortutako aurrezteekin amortizatuko dituzten sektoreetan”.

Uko eginik ingurumena eta lehen-gaiak nagusiki hondakin bihurtzen dituzten obra faraonikoei, inbertitu azpiegiturak zaharbertitzen energia murrizteko: etxeen isolamenduak hobetzen, eraikin publikoak mantentzen, ur hornidura sarean hobetzen, hondatutako parajeak konpontzen...

Energia berriztagarrietan nagusiki autokontsumoari lotuak. Birziklatze bidez materialak berreskuratzea. Lekuko beharrak ahalik eta gehien asetzeko nekazaritza ez kimikoa. Komertzio txikia. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko kateak laburtzeko banaketa sareak. Enpresa handiek ez baina txikiek edo ertainek, artisauek eta lekuko bulego tekniko berezietuek burutu ditzaketen jarduerak.

Aliantza berri bat antolatu behar da batetik nekazarien, merkataritxi-txikien, enpresa txiki eta ertainen, artisauek eta lekuko profesionalen, eta bestetik obra handien eta zerbitzu publiko oinarritzkoen pribatizazioaren kontra ari diren mugimenduen artean, globalizazioaren saretik aldendu eta lekuko ekonomiak sustatzeko, erregai fosilak ahalik eta gutxien usatuz eta ahalik eta produkzio autonomia handiena eskuratzeko.

Sistemaren hondamendiak pertsonak eta herriak zanzatu ez ditzan programa baten lehen lerroak dira. Hondoratzea denbora kontua da, diote manifestuan. Gerta daiteke klimaren krisia lehenago, eta orduan irtenbidea zailagoa izango da. Krisi ekonomikoak atzeratzen baldin badu klimarena, aukera hori baliatze osoa osatu behar dira “sare ekonomiko, produkziozko eta sozial alternatiboak, modu independentean eta lekuan lekuko baliabideekin funtzionatzeko gai izango direnak. Historian beti hala izan baita”.

Honela bukatzen dute manifestua: “Gizadiaren historiaren fase berriari ekiteko oinarritu beharko da erresistitzeko ahalmenean, trantsizioa dramatiko izango baita, belaunaldietan barrena pilatutako jakintzan, naturaren baliabideak errespetuz, eraginkortasunez eta adimentsu eraldatzean, elkarrekiko begirunean oinarritutako harremanetan. Gaurko krisia historikoa da, ez koiunturala. Etorkizunik ez duen ekonomia ereduaren krisia da, ezin da ez berregituratu eta ez hobetu ere, beste batez ordezkatu behar da”.







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Garbine Ubeda Goikoetxea

Panfleto banatzailea

H

iru emakume, zorro bete panfleto antinuklear bizkarrean hartuta, Hendaiaiko saltoki nagusiko atarira heldu dira. Supermerkatua –zeinari mundu guztiak Champion txiki deitzen dion baina jabe berria duenetik Carrefour den–, herriko zentroa izan ohi da goizetan, adin batetik gorakoen dantzatoki, bizitza sozialerako bilgune. Areago gaur, hil hasierako larunbata.

Aldenik aldeko toldoipean, paretari itsatsiak diruditen zaindariak izan ohi ditu: Arcachoneko ostra saltzailea, oinetakoak jartzeko gurarik ez duten bizpahiru eskale, haien zakur akitua eta kutzazain automatikoaren ondoko koska eserleku partikularizat hartua duen matraka-zalea. Gaur ez dira ageri. Euriak beldurtuko zituen.

Hiru emakume folioz armatuek militarki hartu dute tokia, edo bederen hala nahiko luke taldeko liderrak, manera zaharretan ikasitako aktibista ezkertiar beterranoa, joan den aspaldian ingurumenaren aldeko militantziari *full time* emana. Erdiko pasabidean jarrita, akuilatu egiten ditu beste bi kideak, izatez eta arduraz apalagoak, panfletoa luzatzearekin batera lelaren bat ozen bota dezaten, jendea kontzientziatzeko lanetan eraginkorrago, “profesionalago”, aritu daitezten. Ez da erraza.

Ibiltari harrituek, lehen kolpean Jehovahren Lekukoen atzaparretan erortzera doazela susmoa hartuta, maniobra disimulatuak inprobisatzen dituzte topaketa saihesteko. Adibidez, karramarroaren antzean zeharka ibiltzea, horrek estropezu egiteko aukerak biderkatuko badizkie ere. Adibidez, hil ala biziko presak hartuta trostan pasatzea. Adibidez, telefonotxo atera eta ministro okupatuaren plantak egitea.

Hiruretan herabeenak, mundua salbatzeko motibazioa aspaldi galdu eta taldeko liderraren marmar dogmatikoak berriro ez aditzeagatik etorri denak, soziologia merkea eginez samurtuko du eguarte osoan luzatuko den estualdia. Jolas sinplea propo-



DANI BLANCO

satzen dio bere buruari, atearen ertzean jarrita: hurreratzen den biktima bakoitza zein multzotakoa den igartzea, eta horren arabera, panfletoaren aurrean nola jokatu-ko ote duen asmatzea.

Euskalduna bada, irribarrea zabalduz eta biziki eskertuz hartuko dio papera, “egun on” entzun orduko, aurkeztuko zaion gaia bost axolako bazaar ere. Gaztelaniaz mintzo den erdalduna bada, “*no entiendo*” lehorra esanez uxatuko du atrebentzia, pausoa bizkortuz, kopeta belztuz, eta bere hizkuntzan segida eman nahi izanez gero, “*si pero yo no soy de aquí*” erantsiz, horrek holokausto nuklearretik ere salbatuko balu bezala.

Frantses hiztunak “*merci*” esan eta oro har hartu egingo dio esku-orria. Horien artean batzuk, zahar jendeak, emakumez-

koek, txanpon-zorrotxo atera-tzeko keinua egingo diote badaezpada, eta ufada lasaigarria atzetik, eskupekorik tokatzen ez dela adituta. Beste zenbaitek atzera itzuliko dio folioa. Begietara so, Frantziako lobby nuklearrak bere alde baliatzen dituen argudioak kantatuko dizkio buruz. Ez dio ezer diskutituko. Aire.

Eguneko sorpresa, hala ere, bere katalogazio sisteman aparteko azpimultzoa osatu behar-ko lukeen aitona berriketariak eman dio. Patrika zabaletik arkatza atera, eta hartu berri duen panfletoaren bazterrean eskema moduko bat zirriborratzen dion bitartean, bizikletetako dinamoaz mintzatu zaio, dinamoaren bidez sortzen den argindarraz.

“Hementxe duzu nuklearra saihesteko gakoetako bat”, bota dio euforiko, bukatu berri duen obra piktorikoa erakutsiz. “Jar ditzagun preso guztiak bizikleta estatikoetan pedalak eragiten, bospasei orduz. Asma dezagun modua ahalegin hori sare elektrikora hel dadin, eta hortxe argia debalde. Egin dezatela hori planetaren alde, gizartearen kontura bizi ditun eta”.



Hiru emakume folioz armatuek

militarki hartu dute tokia, edo

bederen hala nahiko luke taldeko

liderrak, manera zaharretan ikasitako


aktibista ezkertiar beterranoa, joan den

aspaldian ingurumenaren aldeko

militantziari *full time* emana

ASTE HONETAKO

zozketa



Ibernalo Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Kanpezu ARABA
www.ibernalarural.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2




Inguru Abentura

Puenting (II. maila)
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA
www.inguruabentura.com

3



Jorge Abadias

A Tablero

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Gartxot

2 liburu opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2331. Argia)

BESARO LANDA HOTELA

- Iñaki Gabilondo Millet (Leintz-Gatzaga)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Jabier Azkarate Ugalde (Urretxu)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Errioguarda Enea Jatetxea (Hernani)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)

AMAIUR 2012 KONTZERTUA

- Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)
- Iñaki Arana Etxebarria (Trapagaran)
- Joseba Iriondo Goti (Laudio)
- Lukas Etxebarria Sagastume (Gasteiz)

MUNDUKO IPUINAK

- Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)
- Maria Isabel Aranburu Garcia (Arrasate)

PARTE HARTZEKO

Astekari honetan iragarri ditugun zozketetan parte hartzeko aukera, abuztuaren 24 arte luzatuko dugu, udako oporraldia dela eta. Eskerak internet bidez bakarrik egin ahalko dituzue: gunea@argia.com posta elektronikora mezu bat bidaliz edo www.argia.com/gunea kanalaren bitartez.

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete



Olinpiar Jokoak

**Uztailaren 27tik
abuztuaren 12ra**

BERRIaren eskutik

● **www.berria.info**n
webgune berezia

● **Egunero 12 orriko**
gehigarria BERRIAn

**Zuzeneko
telebista saioa
12:00etan**

Prentsaren begiratuak • Erreportajeak
Elkarrizketak • Konexioak Londresetik
Umorea • Musika

Eta zu?

Egon al zara inoiz Olinpiar Jokoetan?

Zatoz BERRIARA,
eta konta iezaiguzu
zuzenean



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz

berria info